Azkenik, zergaren autormenari eta sarrereari jagokonez, araudi bidez antolatuko da ze kasutan eta zelan egin behar dauzan zergaren autormena eta zerga-zorraren sarrerea egoitzea Espainiako lurraldean daukan balore-gordailuzain zentral batek subjektu pasiboaren izenean eta kontura. Horrelan automatizazio-maila handia lortuko da zergaren kudeaketan.

Aurreko prozedura aplikau ezin dan kasuetan subjektu pasiboak orokorrean autolikidazioaren sistema egin beharko dau.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. A continuación, iniciaremos el turno de los grupos. Debo señalar que el proyecto no ha sido enmendado. Y la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

De Madariaga andrea, dumping fiskalarena Urkullu izan zan, argi geratu dakizun dinotsut...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, Martínez andrea, mugatu zaitetz gaira. Badakizu ezin zarana itzuli aurreko eztabaidara. Lotu gaiari.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Bai, bai. Ez, hori argitzearren zan, beste barik. Eta zerga-gaiagaz jarraitzen dozuenez, eta zergak igoten jarraitzen dozuenez, hau Tobin tasea lez ezagutzen dogun arren, danok ados zagozen zergea baino ez da, eta gu ez gagoz ados. Beraz, nire ustez, tira, eztabaideagaz jarraitu geinke.

Zer da hemen proponiduten dana? Zer da onartuko dozuena eta zer da Diputaduen Kongresuan be onartu dana? Bada, azkenean, Espainiako familia aurreztaileen %10ek, Bizkaiko familia aurreztaileen %10ek, edo sortu daben aurrezkiaren zati bat inbertidu gura badabe, edo enpresak finantzetara bideratuko dabela erabagi gura dabenek, gehiago ordaindu beharko dabela. Horixe da zuok hemen erabagiko dozuena, eta hori zoragarria dala pentsauko dozue, izan be, diru-sarrera publikoak ez dakit zein kopurutan handituko dozuezalako, ez dakit zelan kalkulauta dagozan, hilebeteek aurrera egin ahala agirian geratu da-eta kalkuluak ez dagozana ondo eginda.

Baina, tira, horixe da zuok gaur hemen onartuko dozuena, barriro dinot. Aurrezki bat daukien eta aurrezki horregaz enpresen finantzaketan lagundu gura daben familien %10ek, hau da, inbersino horretan lagundu gura dabela erabagiten badabe, burtsan kapitalizauta dagozan eta enpleoa sortzen daben eta baliabide publikoak sortzen dabezan enpresei lagundu gura deutseela erabagi ezkerro, zigortu egingo doguz. Eta guk, jakina, horren kontra bozkatuko dogu, egiten ari zariena transakzinoak garestitzea dalako.

Baina bitxia da, zuoi guztioi ondo-ondo iruditzen jatzuelako dirua enpresa-inbersinoan laguntzeko erabiltea erabagiten dauen aurreztailea zigortzea. Baina aurreztaileak erabagiten badau bere aurrezki zor publikoan sartzea, hori ez da zigortzen, hori ez. Eta zergaitik ez? Zergaitik uste dozue zoragarria dala enpresa bateko akzinoak erostea erabagiten dauen familia batek ordaindu behar izatea transakzino-zerga hori, bitartekariak edozer esanda be, erosten dauenak ordaintzen dau-eta, eta, halanda be, hara, familia horrek berak Altxorren Letrak erostea erabagiten badau, hor ez jako zerga hori apliketan? Horrek be justizia izan behar dau. Izan be, gastu publikorako bada, hor ez deutsat kobretan; baina inbersinorako bada, enpleoa eta aberastasuna sortzeko bada, ba bai, hor kobrauko deutsat, bai. Ah, eta, jakina, zerga edo deitzen deutsazuen tasa hau be ez da apliketan egun berean erosten eta saltzen dauenari. Hara, 100 akzino erosten badodaz eta egun berean 80 saltzen badodaz, egun berean saltzen dodazan 80 horreen truke ez deuste zerga hori kobretan. Izan be, zuonak, benetan, ez dauka izenik.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, lehenik eta behin, botoa Arau hau onartzearen aldekoa izango dala esan behar dot. Itundutako zerga bat dogu berbabide, Ekonomia Itunaren bidez araututa geratu dana, eta Estaduaren arau substantibo eta formalek arautzen dabenez, ez deusku aukerarik emoten zerga honen funtsezko alderdietan aldaketak egiteko, eta hori, tira, gure ustez, beharrezkoa litzateke. Baina hori guztia alde batera itxita, uste dogu interesgarria dala gai batzuk aintzat hartzea.

Alde batetik, ekonomiaren digitalizazioan be aurrera egiten ari gara; orain arte, figura jakin batzuk, transakzioak eta gaur egun dogun zerga-sistematik iges egiten ari diran beste negozio-eredu batzuk egon dira; era berean, figura barriak sortu behar doguz egoera barriaren aurrean. Hori euretako lehenengoa da.

Bigarrenik, horrezaz gain, uste dot aintzat hartu behar dala Ganbera honetan zerga-figura bati buruz berba egiten dogun lehen aldia dala, eta gainerakoak ez bezala, orain arte finantza-sektoreko handiek (eta ez familiek; familiek, ez) izan dabean pribilegioei muga batzuk jarteko etorri da. Izan be, hamarkadetan ez da egon nahita araututa eta hori euren mesederako izan da; elite ekonomiko gitxi batzuen alde behar egin dauen merkaduak be mesede egin deutse, eta hori guztia herritarrei on egiten deutsena kaltetu eta murriztearen kontura izan da. Horretaz ari gara, horretaz, eta ez familia aurreztaileez.

Gure taldearen eretxian, aberastasuna birbanatzea eta desbardintasunak desagerrarazotea bermatuko dauen fiskalitate zuzen eta bidezko baterantza igaro behar dogun bidearen hasieraa da. Eta, beraz, diru-bilketarako tresna bat da, bai, eta komunari, publikoari eta guztiok darabilguzan zerbitzuei egiten jaken ekarpena handitzera dator (sektore batzuk saihestu egin daben ekarpena, ezta?). Eta, beraz, ulertu neike PPren ikuspegitik edo ulertzeko modutik, tira, ez izatea bere gustukoa. Familientzako zerga bategaz estaldu gura izan dau, baina, nire ustez, bi faltsukeriatan ari dira.

Lehenengoa da zergaduna, hau da, zergea ordaintzen dauena finantza-bitartekaria dala, ez familia. Eta bigarrena, tira, dirua biltzeko zergatzarra izateko urrun dagoala. Izan be, karga-tasea barregarria da, ez da-eta %0,2ra heltzen. Barregarria, tira, orain dala gitxienez 10 urte baino gehiago Europan honetaz berba egiten hasi zanean egon ziran aurreikuspenak betetetik be sano urrun dago, bete egingo zirala uste genduan-eta. Halanda be, eta %0,2ko mueta barregarri hori gorabehera, modu positiboan baloretan dogu abian jartea, hau da, lehen esan deutsuedan moduan, danok guztioi jagokuna jarriko dogun zerga-sistema baterantza hondino egiteko dagoan bide horren hasieratzat jotzen dogu.

Ondo da. Nire ustez, Europari begiratzen deusagunean argi geratzen da zergaitik ez dan zerga hori oraintxe bertan jasoten Europa mailako arau baten. Zergaitik? Ba, sektore batzuk aurka agertu diralako. Jakina, boikota egin jako zerga horri Europan, baina boikota egin deusienak ez dira izan familia aurreztaileak; ez, ez. Botere ekonomikoak izan dira, euren espekulazino-dinamikakaz 2008ko krisia eragin eben berberak. Horreek dira arau horri boikota egin deusienak, gure lurraldeko gazteen ekonomia eta etorkizuna kaltetu ebenak.

Halanda ze, itxiko deustazue, baina guretzat figura hori bidezkoa da, eta finantza-merkaduen espekulazinoari zeozelako galgea jarteaz gain, azkenean merkadu horreek jagoken neurrian jarri dagiela egiten dau. Horrezaz gainera, espero daigun hemendik urte gitxira tipoa aldatzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Finantza-transakzinoei buruzko Foru Arauaren proiektuari buruz diputadu jaunak emon dauzan azalpen zehatzak entzun ondoren, Euskal Sozialistok ez gara edukinean sartuko, eta zergaitik bozkatuko dogun horren alde azalduko dogu.

Euskal Sozialistok hainbat errazoigaitik emongo dogu aldeko botoa. Lehenengo eta behin, Bizkaian apliketako dan finantza-transakzinoei buruzko Foru Arauaren proiektu hau Ekonomia Itunean oinarritzen dalako. Itun hori Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiaren arteko zergen hartu-emonak arautzen dauzan tresnea da, eta, gure ustez, primeran funtzionetan dau, baina Espainian une guztietan indarrean dagozan parametroen pean.

Bigarrenik, zerga horrek beste herrialde batzuek (Frantziak eta Italiak, esaterako) hartu daben ildoari jarraitzen deutsalako, eta horrek lagundu egiten dau European zerga horreek gehiago koordinatu daitezana. Hori funtsezkoa dala uste dogu zerga-saihestearen aurka burrukatzeko. Euskal Sozialistok subjektu bakotzak jagokozan zergak ordaintzearen alde gagoz, eremu bakotxean, kasu honetan Bizkaian sortzen dauen negozioaren arabera. Halanda ze, ondo etorria emoten deutsalako.

Hirugarrenik, transakzino horreei %0,2ko zerga-tasea aplikauko jakelako, eta horrek gehiago biltzeko aukerea emoten deusku, Martínez andrea.

Laugarrenik, Bizkaiko lurraldean egindako eragiketen bolumenaren proporzinoan zergapetuko dalako, zerga-egoitzea edozein dala be, hau da, zergak ordaintzerakoan negozioa daukazu tokia nabarmentzen dalako, eta ez bizi zaran tokia.

Eta, bosgarrenik, argitu behar da finantza-transakzino zehatz-zehatzei ezarten jakela. Diputadu jaunak esan dauen moduan, Espainiako merkaduan edo Europar Batasuneko beste merkadu baten negoziatan diran soziedadeen akzinoak izan behar dabe, eta eragiketea egin aurretik, abenduaren 1ean 1.000 milioi eurotik gorako burtsa-balioa daben enpresen akzinoak dira.

Horregaitik guztiagaitik, barriro dinogu Foru Arauaren proiektu honi baieztoko botoa emongo deusalagula, horregaz garai barrietara eta negozio barrietara egokitzen garalako eta, gainera, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ahalbidetuko deuskuen diru-sarrera handiagoak lortuko doguzalako.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora

Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, Señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Lo que debatimos hoy es un nuevo impuesto, vigente en el Estado español desde hace un año aproximadamente.

Este impuesto es necesario, pero como queda claro en la Exposición de Motivos de la Norma Foral, a este impuesto le serán de aplicación las mismas normas sustantivas y formales establecidas por el Estado en cada período. Así se aprobó en el artículo 34 bis del vigente Concierto Económico.

Y ahí está el problema. Nos han traído ustedes una Norma Foral, pero no podemos cambiar nada sustantivo. Corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia únicamente la aprobación de los modelos de declaración y de ingreso, así como de los plazos de ingreso, pero nada sobre lo esencial.

Ez deusagu zuzenketarik aurkeztu Foru Arau honi, ez edukinagaz ados gagozalako, edukin substantibo hori Espainiako Estatuaren esku dagoalako baino. Eta beharrezko zergea da, eta halan defendiduten dogu; uste dogu egon behar dauela, baina hemen, Batzar Nagusietan erabagi gura dogu zein dan zerga honen zergapeko egitatea, salbuespenak edo zerga-tasea, berbarako. Baina, esan dodan moduan, horri guztiari buruz ezin dogu erabagi, horrelan erabagi zenduelako Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan.

El pasado mes de diciembre, cuando debatimos en estas Juntas Generales el nuevo contenido del Concierto Económico, también nos abstuvimos porque los dos nuevos impuestos, este de Transacciones Financieras y el que luego debatiremos, el relativo a diversos Servicios Digitales, quedaban como competencias del Estado.

Y por eso hoy también nos abstendremos en la Norma Foral del Impuesto sobre Transacciones Financieras.

Estamos de acuerdo con la creación de nuevos impuestos, pero EH Bildu quiere debatirlo aquí, en estas Juntas Generales. Por ejemplo:

-En el hecho imponible, en el artículo 4, se establecen los requisitos para estar gravado, y uno de ellos es que el valor de capitalización bursátil de la sociedad supere los 1.000 millones de euros a 1 de diciembre del año anterior a la adquisición.

Y hacemos esta pregunta: ¿por qué más de mil millones y no más de 500 millones? Ese es el debate que se ha dado en el Congreso y en el Senado español, pero aquí no podemos tener ese debate.

¿O por qué se deben dejar de gravar las denominadas operaciones de alta frecuencia (HFT)? Estas operaciones están gravadas en Francia e Italia, ya que este tipo de operaciones son realizadas principalmente por grandes inversores con fines especulativos.

De eso no podemos adoptar decisiones.

-Exenciones (artículo 5). Hay muchas exenciones y si analizamos las diferentes normativas que existen en Europa, en Bélgica, por ejemplo, las exenciones se hacen en función de la naturaleza del instrumento financiero, se establecen límites

diferentes e incluso tipos impositivos diferentes.

-Tampoco podemos decidir el tipo impositivo. En España, es del 0,2%, pero en Francia, del 0,3%; y en Bélgica, en algunos casos, incluso llega al 0,35%.

-O en la base imponible, ¿cómo gravar las transacciones realizadas dentro de un día? Entendemos que se deben gravar de forma individualizada, encaminándose a desincentivar este tipo de operaciones, que son las que tienen como protagonistas a inversores de perfil especulativo y a grandes operadores.

Al fin y al cabo, hay muchas cosas que discutir en torno a este impuesto, pero aquí no podemos. Como he dicho antes, aquí no podemos decidir sobre todas esas cuestiones. Este Impuesto sobre Transacciones Financieras es necesario, pero somos nosotras y nosotros quienes tenemos que decidir cómo desarrollar este impuesto. Y como no podemos, nos abstendremos por dicha razón.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Hoy tenemos como tema de debate el proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre las Transacciones Financieras, y como sabemos, y tal y como se ha manifestado en las anteriores intervenciones, el 29 de julio de 2021 el estado español y la Comunidad Autónoma Vasca acordaron este impuesto de transacciones financieras en la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Y, en nuestra opinión, es importante en primer lugar explicar de dónde surge este impuesto.

Eta, hain zuzen be, Europar Batasunaren barruan eta beste herrialde batzukaz batera ari da 2013tik hona lankidetzaz indartuko prozedura lantzen, zerga hori edo Tobin tasea ezarteari buruzko zuzentzarau bat onartu daiten.

Urte horreetan guztietan, zergearen konfigurazinoan aurrerapausuak emon diran arren, ezinezkoa izan da zuzentzarau bat sortzea, eta, hain zuzen be, ona da; izan be, horregaitik, estatu kideetako batzuk eta Erresuma Batua bera aurreratzen joan dira eta daborduko finantza-transakazinoen zerga hori ezarten dabe zeozelan; Frantzia, Italia, Belgika, Finlandia, etab.

Zerga horren helburu nagusia zerga-ekidarearen printzipioa indartzea baino ez da, eta, aldi berean, finantza publikoak sendotzen laguntzea gure zerga-sistemea errealidade ekonomiko barrira egokitu daiten, eta azken urteotan gehien nabarmendu diran eragiketa ekonomiko batzuek, batez be garapen digitalak eraginda, fiskalitate desbardina izan dagien, batez be finantza-sektorean ekarpen zuzenagoa bilatuz. Zeharkako zerga da, eta %0,2 zergapetzen dau 1.000 milioi eurotik gorako burtsa-balioa daben soziedadeen akzinoen merkadu arautu bateko akzinoen salerosketak. Era berean, esan behar da zergearen zergaduna baloreen eskuratzaila izango dala, eta subjektu pasiboa izango dala norberaren konturako erosketea egiten daben inbersino-zerbitzuetako enpresa edo kreditu-

erakundeak, eta egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaindu beharko dazala zergak Bizkaian.

Gure kasuan, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, Espainiako Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko dan zergea da, lehen esan dan moduan; beraz, Ogasunak izango dau autormen- eta sarrera-ereduak ezarteko eskumena. Gure aldetik, esan behar dogu gure botoa gure zerga-sisteman zerga hori sartzearen aldekoa izango dala, lehenengo eta behin, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan halan erabagi zalako, baina batez be, gure taldetik beti egin dogulako ahalik eta finantza-sistema harmonizauenaren alde. Zerga hori Europatik lankidetzat indartuan sustatzen ari danaren sano antzekoa da, eta inguruko herrialdeetan ezarritako zergen antzeko-antzekoa be bai.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Labur-labur egingo dot.

Bai, harrigarraia da tribuna honetara urtetea hori beharrezko zergea dala esaten, horrelan gehiago biltzen dalako. Hara, eta bihar erabagiko dozue arnasea hartzea beharrezko zergea dala, gorputza herdoildu egiten dauelako, eta beste zerga bat ipiniko deuskuzue? Ez dauka inongo zentzunik, benetan. Barrero dinot, zerga horretan, gainera, 8ko diru-bilketea aurreikusten zan, eta 2 bildu dira. Hortik hasita, ikusi zeinkiez memoria ekonomikoak, eta ikusiko dogu zer biltzen dan horregaz. Eta ezin deustazue esan hori finantza-bitartekariak ordaintzen dabela, badakizue-eta horrek guztiak azkenean personakan daukana eragina, aurrezki bat daukien familiakan, lehen esan deustuedan moduan, enpresa kapitalizau baten inbertidutea erabagiten daben familiakan, eta horrek, jakina, enpleoa eta aberastasuna sortu leike.

Begira, ahoa beteten jatzue beti aberastasunaren birbanaketeaz berba egiten dozuenean, eta ni guztiz bat nator, baina aberastasuna birbanatu ahal izateko, hori sortzen lagundu behar da. Eta zuon politika guztiak pasetan dozue trabak ipinten, inbertiduten dauen jenteari, arriskuak hartzen dauzan jenteari trabak ipinten, eta zuentzat dana erraz-erraza dala emoten dau, paper bat hartzea baino ez da-eta, eta zera esatea “ba, ezebez, orain zerga bat igongo dot”. Eta gura dozuen egunean, edo gero, izan be, hirugarren puntuan, hau bigarrena da, bigarren zerga-igoerea dalako, eta hirugarrenean hirugarren zerga-igoerea daukagu. Igoten dozuezan zerga guztien zerrendea egin geinke, eta ez dakit uste dozuen berez ordaintzen dirala, baten batek makinatxo bat daukala... Ez, ez, ez. Azkenean, klase ertainek ordaintzen dabe, Bizkaiko klase ertainak, euskal klase ertainak, klase ertain espainolak, ondoizate-egoera osoari eusten deustan klase ertainak ordaintzen dau.

Ez eidazue esan hori espekulazailentzat danik, esan deustuedalako Tobin tasea zala, hoba ez, Nobela, taseak horren izena daroa-eta. Izan be, zigortu egin gura eban espekulazinoa. Azkenean, Tobin be ez egoan ados zerga horregaz, baina barrero dinot, egun berean erosten eta saltzen dauenari ez jakola apliketan onartu dozue, eta hori espekulazinoa izango da, dinot nik. Hori espekulazinoa da, ez 100 euro daukazala dinoan familia bat eta ez dakit zein enpresa kotizauren akzino bat erosten dauena. Gainera, kontuan izan behar dozue, hara, Espainiako enpresetan inbertidutea erabagiten dauenari

zigortzen jakola (testua irakurriko zenduela uste dot, dinot nik), hau da, nori ezarten jakon zerga hori, eta, jakina, enpresa espainiarrei ezarten jake, erosten dauenaren bizilekua edozein dala be. Eta, hain zuzen be, merkadu asko dagoz zabalik munduan, eta zuek egiten dozuena da gure herrian inbertiduteak gero eta erakargarritasun gitxiago euki dagiala, egun osoan zehar trabak ipinten dozuez-eta.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Gure ustez, beharrezko zergea da, bidezkoa dan zerga bat. Eta beharrezkoa da, bakar-bakarrik, orain arte, horreek orain arte dogun zerga-sistematik iges egiten ari ziralako. Irabaziak badaukiez, beste edozeinek lez, guztiona dan horretan lagundu beharko dabe, ez dago besterik. Eta gero, zu hemen aurreztaileez berba egiten hasten zara, familiez, eta nik, egia esan, uste dot familiaz berba egiten dozula Al Capone estiloan bizkaitarren familiez baino gehiago, egia esan. Orain arte izan dan erregulazino-falteaz baliau dan familia dozu berbabide, familia horretaz ari zara, ez Bizkaiko familiez. Finantzen hartu-emonen esparru barri bat daukien horreetatik, erregulazino ezaz baliau dira boltsikoak beteteko, bai, bai, andrea, bai, hori horrelan da, eta, batez be, espekuletako, espekuletako baliau dira. Horixe egiten aritu dira, inongo muga barik espekuletan, belaunaldi barrian etorkizuna aurretik be eroan arte. Horixe da egin dabena.

Familia horri buruz ari zarie, eta familia horrek ahal izan dauzan oztopo guztiak ipini dauz European akordio globalik egon ez daiten, ezta? eta, tira, modu harmonizauan egin ahal izan ez daiten. Hori da gaur defendiduten ari zarien familia. Nire ustez, oso tributu-figura ona da, eta horrek, a priori, urriak izango diran ondorio kuantitatiboak izango dauz; izan be, %0,2ko taseagaz, ba, tira, bilketea nahiko eskasa izango da. Baina uste dot modu kualitatiboan asko irabazten dogula, bialtzen dan mezua argi-argia dalako: “amaitu jatzue pagotxea”. Eta gauza txiki bategaz hasi gara, baina harenbaten urte batzuk barru arean handiagoa izan daitela lortuko dogu. Eta benetan gehien daukienek gehiago ipini dagiela. Nahikoa da horrenbeste lotsabakogaz sistema honetan! Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Martínez andrea. 2015eko urriaren 9a. José Manuel Soria Alderdi Popularreko ministroak: eguzkiari zergea. Eta nor eta zu zatortaz zergen inguruan berbetan? Eguzkiari zergea, 2018an Pedro Sánchez Espainiako Gobernuko presidente jaunak indarbakotu ebana. Uste dot erantzun deusudala.

Eta, gero, bai, familiaren kontzeptu bat daukazu... Jakina, familiak dana hartzen dau, sano kontzeptu zabala da. Hemen sartu geinke..., neure burua sartu neike, familia bat naz-eta; hilaren amaierara heltzen ez dan personea..., baina hor Botín familia be badago. Nire ustez, gehiago pentsetan ari zara Botín familian gainerako

familietan baino, eta guk, sozialistok, argi daukagu gauza bat, guk badakigu dirua ez dana makina batetik ateraten, badakigu ekonomia sortu behar dana.

Ahal izan ezkerro, irabazia sortuko dauen negozioa egin behar da, hortik zergak atera ahal izateko eta zerbitzu publiko eta kalidarezkoak euki ahal izan daiguzan; baina autortu beharko deustazu, era berean, jente horrek negozioa egin ahal dagian oinarri batzuk eta diru bat balio daben zerbitzu publiko batzuk egon behar dirala, eta eskatzen ari garan gauza bakarra da lortzen dabezan irabazietatik kopuru txiki bat ordaindu dagiela, irabazien kopuru txiki bat ordaindu dagiela. Horrek, jakina, Elkarrekin Bizkaia taldeko ordezkariak esan dauen haritik, inflexino-puntu bat ezarriko dau. Modu kuantitatiboan ez da asko izango, baina argi geratuko da era proportzionalean ordainduko dana negozioa egiten dan tokiaren arabera, eta ez teorian bizi dan tokiaren arabera. Gu horren alde gagoz eta horrexegaitik emon deusagu aldeko botoa arau-proiektu honi.

Nada más, y muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Yo simplemente quiero insistir en que, en nuestra opinión, este impuesto es necesario. Lo he dicho antes: nuestra abstención está relacionada, por una parte, en que creemos que no es suficiente el hecho de que sea necesaria, y no tenemos ninguna opción de realizar modificaciones, y que es posible. Me ha parecido muy curioso que la representante del PP diga que se ha recaudado muy poco. Bueno, ya sabemos cuál es el camino para eso, incrementar el tipo, pero no podemos. Pero yo creo que aunque sea insuficiente, sí que es realmente un primer paso para gravar de verdad esas numerosas transacciones financieras que han utilizado la elusión fiscal hasta ahora.

Esperamos que pronto tengamos la opción de modificar, y especialmente que podamos poner un obstáculo al menos en esas especulaciones financieras que se han realizado hasta ahora. Entiendo que será muy complicado acabar con ello, ha costado mucho establecer un impuesto como este. En Europa ha habido muchos impedimentos y aquí también se ve que algunos/as no quieren, pero creo que es imprescindible la puesta en marcha de este impuesto relacionado con las transacciones financieras. Esperemos que la próxima vez podamos decidir este impuesto aquí. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Señora Urkaregi, es cierto que los lugares para modificar cuestiones y debatir eran el Congreso y el Senado, pero al menos en el Senado EH Bildu votó favorablemente.

Ezarrirako 0,2ko taseari jagokonez, egia da ez doguna hori aldatzeko gaitasunik, baina egia da, era berean, zerga hori onartu daben Europako herrialdeetan be sano antzeko karga-tasak ezarten ari dirana. Esate baterako, Frantzian 0,1ekoagaz hasi zan; 0,2ra pasau zan eta gaur egun 0,3an dago. Tira, hasiera bat da, ikusiko dogu zein dan zerga honen bilakaerea.

Gure ustez, finantza-transakzino jakin batzuk ahulduko ditu, hain zuzen be, espekulatiboenak, hau da, enpleorik sortzen ez dabenak, ekonomia dinamizetan ez dabenak eta, hain zuzen be, familia aurreztaileek eta klase ertaineko familiek egiten ez dabezanak. Ez deutse kalterik egingo banku-zerbitzuak erabilten dabezan familia horreei. Zerga honen helburua da finantza-aktiboen eskala ertain eta handiko salerosketea zergapetzea, eta hori ez da, hain zuzen be, klase ertaineko familia gehienek jarduerak edo eragiketean.

Gure taldea, hamaika aldiz errepetidu dan moduan, ez dago zergak kentzearen edo jastearen alde, ondorioa beti bardina dalako, hau da, zerga gitxiago badago zerbitzu publikoak finantzatuko diru gitxiago dagoalako. Baina fiskalitate justu, zuzen eta progresibo baten alde gagoz, Europagaz harmonizauta, aberastasuna birbanatzeko balioko dauena eta ekonomia erreala suspertu eta espekulazino finantzarioak zigortuko dauzana.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Y una vez concluido el debate, debemos someter a votación, en esta ocasión también el dictamen de la Comisión.

Podemos votar. El resultado es el siguiente: se han emitido 44 votos en total. Votos favorables han sido 34; hemos tenido 2 votos en contra, 8 abstenciones. Y, por tanto, la Norma Foral ha sido aprobada.

El tercer punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**

jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proyecto de Norma Foral ([R.E.11/E/2022/0000728](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Determinados Servicios Digitales.

Documento Principal: [Ver](#)

Boletines: [Admisión a trámite](#) (13A), [Apertura del plazo para presentación de enmiendas](#) (13B),

[Enmiendas: No presentadas](#) (13C), [Dictamen de la Comisión](#) (13D)

Expediente: ([11/A/08/0003331](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Arau Proiektua ([11/E/2022/0000728SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren Proiektua

Dokumentu Nagusia: [Ikusi](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (13A), [Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (13B),

[Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (13C), [Batzordearen Erizpena](#) (13D)

Espedientea: ([11/A/08/0003331](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra para presentar el proyecto.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Tira, tribuna honetatik entzun dodaz zerga desbardinei buruz emoten diran argudioak, baina hemen, egia esan, zera egiten ari gara: zelan txertatu gure zerga-sisteman Ekonomia Itunaren egokitzapena Diputaduen Kongresuan bi zerga barri onartu ondoren, eta gure araudira eroan behar doguzala esaten da, danok dakizuen moduan, nire ustez. Eta hori zelan egiten dan? Ba, Ekonomia Ituna berregokitzen dauen 1/2022 Legeagaz, neuk be aurreko puntuan erabili eta aitatu dodana; eta gero, mundu guztiaren jarrerak... Argitzearren, beste barik.

Diputaduen Kongresuan, 1/2022 Lege horrek Ekonomia Ituna aldatu eban, eta bertan zerga bi horreek jasoten dira, finantza-trasakzinoena eta zerbitzu digitalena. Lege horrek aldeko 280 boto euki ebazan: Espainiako Langileen Alderdi Sozialistea, Alderdi Popularra, Podemos, Talde Anitza, Esquerra Republicana, EAJ, Bildu eta Talde Bereziko 6 parlamentari. Kontrako 57 boto izan ebazan: Vox eta Ciudadanos. Eta lau abstentzino.

Senaduan testu horrek berak, Senadutik pasau zanean, 253 baiezko eta 5 ezezko boto izan ebazan. Tira, bada, Lege hori ari gara eztabadaitzen, horri guztiari bide emoten deusan legea, zerga horretan gure araugintza-ahalmenak biltzen dauzana, eta egin behar doguna dakargu hona. Halanda ze, tira, bakotxak esango dau hemen esan beharrekoa. Nik ez dinot ezer, baina horixe da egoerea, 1/2022 Legea da, zuek guztiok Kongresuan eta Senaduan ordezkariak doazuen taldeek onartua. Izan be, lege horren ondorioz Itunaren Batzorde Mistoan be onartutako beste zergea zerbitzu digitalena da. Danok dakizuenez, itun barriko zergea da, eta Ekonomia Itunaren 34 ter artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko da, hori da-eta Ekonomia Ituna aldatzen dauen 1/2022 Legeak jasoten dauena.

Ba honegaz jarraitzen dogu. Zer behar dogu? Izan be, lege hori onartu ondoren, xedapen hau emon behar dogu, zerga-figura barri horren arauketea gure ordenamenduan sartzeko, eta bertan jaso behar dira 1/2022 Legeak (Ganbera honetan dagozan taldeetako ordezkari guztiek Kongresuan eta Senaduan onartu ebena) onartutako Ekonomia Itunean finkatutako lotura-puntuak.

Horren haritik, zer dinoan? Bada, zergadunek Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako zergapeko zerbitzu digitalen prestazinoen proportzinoan ordainduko deusiela zergea Bizkaiko Foru Aldundiari. Ondorio horreetarako, zerbitzu digitalen prestazinoak Bizkaiko Lurralde Historikoan egintzat joko dira erabiltzaileak bertan kokatuta badagoz foru-arau honetan ezarten diran lokalizazinoko arauen arabera.

Zerga honen xedea zerbitzu digital jakin batzuen prestazinoak dira; hain zuzen be, zerga honek kargetan dauzan zerbitzu digitaletan erabiltzaileek parte hartzen dabe zerbitzua emoten dauen enpresearen balioa sortzeko prozesuan, eta enpresek zerbitzuen bitartez erabiltzaileen ekarpenak dirutzen dauz.

Emondako zerbitzuei emoten deutse lehentasuna, zerbitzu horreen emoilearen inguruabarrak kontuan hartu barik (gaitasun ekonomikoa, besteak beste). Beraz, zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zergea zeharkako zergea da eta, gainerakoan, Balio Erantsiaren gaineko Zergeagaz bateragarria da.

Zerga honek honako zerbitzu honeek emotea baino ez dau kargetan:

-Interfaze digital baten publizitatea jartea interfazea erabilten dabenentzat (“lineako publizitate-zerbitzuak” deitzen dira).

-Interfaze digital multifazetikoa erabilgarri jartea, erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuk aurkitu eta alkarregaz aritzeko edo arabere alkarri ondasunak emoteko edo zerbitzuak egiteko. “Lineako bitartekaritza-zerbitzuak” deitzen diranak.

-Eta erabiltzaileek interfaze digitaletan jarduerak egitean biltzen diran hareei buruzko datuak eskualdatzea, saltzea edo lagatzea barne, hau da, “datuak eskualdatzeko zerbitzuak” deiturikoak. Ezelan be ez da halakotzat joko Telekomunikazioen Lege Orokorrak aitatzen dauen komunikazio-seinaleak garraiatzea.

Zergearen oinarrien arabera, kargapean ez dagozan kasuak azaltzean argitzen da, besteak beste, honako honeek ez dagozala zergearen karga-esparruaren barruan:

-Lineako bitartekaritza-zerbitzuen erabiltzaileen arteko ondasun-emoteak eta zerbitzugintzak. Eta ondasunak edo zerbitzuak horniduten dabezanen web orrien bitartez linean kontratetan diran ondasunen edo zerbitzuen salmentak, beti be hornitzaileak ez badau jarduten bitartekari lez.

Zerga honen zergadunak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34.3 artikuluan aitatzen dauzan persona juridikoak eta entidadeak, egoitza Espainian, Europar Batasuneko beste estatu baten zein Europar Batasunetik kanpoko estatu edo jurisdikzio baten euki, likidazioaldiaren hasieran honako bi muga honeek gainditzen badabez:

-Aurreko urte naturaleko negozioen zenbateko garbia 750 milioi eurotik gorakoa izatea.

-Eta zergearen kargapeko zerbitzu digitalen bidez aurreko urte naturalean lortutako diru-sarreraren guztirako zenbatekoa, zerga-oinarria kalkuletako erregelak aplikauta (zehazteko diru-sarreretatik zenbat sortu daben Espainiako lurraldeko erabiltzaileek), 3 milioi euro baino gehiago izatea.

Lehenengo mugeari esker, zerga enpresa handiei baino ez jake aplikauko. Izan be, halako enpresak gai dira erabiltzaileen datuetan eta ekarpenetan oinarritutako zerbitzu digitalak emoteko eta horretarako erabiltzaile-sare handiak, datu-trafiko handia eta merkaduko posizino sendoa baliatan dabez batik bat.

Muga hori Erkidegoko beste araudi batzuetan agertzen dan bera da zergen arloko informazioa nahitaez trukau beharrari jagokonez, eta ezarten dau herrialdez herrialdeko txostenari jagokon autormena aurkeztu behar dala. Muga horri esker, bai enpresek bai zerga-administrazioak errazago zehaztu ahal izango dabe entidade bat zergearen kargapean dagoan ala ez. Gainera, muga horri esker zerga barriaren kargatik salbuetsi ahal izango dira enpresa txikiak eta ertainak eta enpresa sortu barriak, horreentzat zergearen kargearen kostua neurritz kanpokoa izango litzatekelako.

-Bigarren mugeari esker zergearen aplikazioa kasu jakin batzuetara mugatu ahal izango da, hain zuzen be, zergearen aplikazio-lurraldean kargapeko zerbitzuek arrasto digital handia ixten daben kasuetara.

Aplikazio-lurraldeagaz zeozelako loturea daben zerbitzu digitalak

baino ez dira egongo zergearen kargapean, eta loturea egoteko ezinbestekoa izango da lurralde horretan zerbitzu digitalen erabiltzaileak egotea; horixe da kargea eragiten dauen loturea.

Zerbitzuen erabiltzaileen egoitzea zergearen aplikazino-lurraldean dagoan ala ez ebazteko arauak ezarri dira, berariazko arauak zerbitzu digital bakoetarako. Oinarrizko erispidea da non dagoan zerbitzuak erabilteko baliabideak dan gailua, eta horretarako IP helbideetara jo ohi da (beste frogabide batzuk be erabili leitekez, batez be gailuen geolokalizazinoarako beste tresna batzuk). Zerga-oinarria zergadunak zergearen aplikazino-lurraldean egiten dauen zergapeko zerbitzu digital bakoetxagaitik jasoten dauzan diru-sarreraren zenbatekoa izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo antzeko zergak zenbatu barik. Zerga-oinarriaren kalkulua dala eta, berariazko arauak ezarten dira zergearen aplikazino-lurraldean dagozan erabiltzaileei jagokezan diru-sarrerak bakarrik kargau ahal izateko.

Foru Arau honen proiektuagaz bukatzeko, zergearen karga-tasea %3koa izango dala esan behar dot. Kargapeko zerbitzugintza bakoetxa gertatzen danean sortuko da, eta likidazinoaldia hiru hilekoa izango da.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Procederemos al turno de los grupos. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Bai, Iruarrizaga jauna, badakigu hemen zer egiten ari garan, ze eskumen daukagun eta noraino heldu ahal garan. Badakigu be Euzko Abertzaleak taldea, betiko moduan, Goi Ganberan, Alderdi Sozialistek eta Podemosen osotutako Gobernuari babesa emoten ari dana honi guztiari. Eta, jakina, horrek ez dau esan gura hemen ezin dogunik planteau zein dan gure aukerea, Goi Ganberan defendiduten dogun aukera bera.

Zera, beste zerga bat da, tira, Google tasea izenagaz ezagutzen doguna lagunartean. Eta zer jazo da Google taseagaz? Lehenengo eta behin, barriro dinot, bildu leitekezan zergak edo bildu leitekezan kopuruak jasoten dauzan memoria ekonomiko bat ekarri deuskuzu hona, Iruarrizaga jauna. Nik bestean dakizu Espainiako Gobernuak egindako aurreikuspenen arabera 10 euro bilduko zirala inoan tokian ez dirana ezta 8 euro be bildu. Eta ez hori bakarrik, ezpada zuok be badakizue horrek, onartu dozuen horrek (guk geldiarazoteko eskatu doguna sarritan) ekarri dauen arazo guztia. Izan be, badakizue, edo jakin beharko zeunkie ELGaren esparruan herrialde guztiek baldintza berberetan funtzionau dagien akordio batera heltzea aurreikusita dagoana.

Eta zer jazo da? Bada, zerga hori onartu egin dala eta, orduan, Estatu Batuek “ba oso ondo” esan dabela, baina orduan eurek muga-zerga batzuk ezarri ahal dabezala hainbat sektoretarako, baita gure herrialdean be, horreetako batzuk funtsezkoak Espainiako ekonomiarentzat, eta uste dot jakingo dozuela zeintzuk diran. Eta zer jazo da? Ba orain, Espainiako Gobernuak azken momentuan akordio batera heldu behar izan dala Estatu Batuetako Gobernuagaz, eta akordio hori apliketan dogu, baina baldintza bateagaz: muga-zergarik ez jarrea, eta ELGAn akordio bat dagoanean, legez kontra kobrutako kopuruak itzuli egingo deutseguzala.

Badakit, bai, Iruarrizaga jauna, hemen ez daukaguna horretaz gaitasunik, eta Diputaduen Kongresuan onartu zanari heldu behar deusagu, eta men egin behar deusagu horri, baina barriro dinot, talde parlamentarioek be onartu daben zeozer da; izan be, Talde Popularrak osoko zuzenketa bat aurkeztu eban bere garaian, horrek sortu ahal ebazan arazoak kontuan hartuta, eta arabere gehiago uste dodanean danok bat gatozala ekonomia digitalizeteak dakarzan onuretan eta daukan garrantzian.

Halanda ze, ezin da, tira, gaur modu baten eta bihar beste era baten jokatu, gu bakarrik gagozala eta ondoen jatorkuna egiten dogula pentsauta. Izan be, jakina, Espainiako Gobernuak estimetan dauzan zergak ezarri ahal dauz, beti be Diputaduen Kongresuan behar adina boto badaukaz, baina hori, jakina, gure ekonomia osoan izango dauzan ondorioak neurtuta egin behar da, orokorrean. Horrezaz gainera, kontuan hartu behar dira beste herrialde batzuek Espainiako ekonomian eta Espainiako industrian garrantzi handia daben enpresen gainean ezarri leikiezan muga-zergak edo zergak.

Eta barriro dinot, gauzak txarto edo edozein modutan egiten diranez, orain horrelan, albora begira egon behar gara memoria ekonomiko baten honenbeste bilduko dala esaten, dakigunean ez dana hori bilduko, eta arabere gehiago jakinda denpora laburreko kontu bat dana, hau da, ELGAren barruan akordio bat egon arte, eta ordurako kobrau diran kopuruak itzuli beharko dirana. Nire ustez, Espainiako Gobernuak egindako aurreikuspenetatik, uste dot..., ez dakit, uste dot %82 baino gitxiago bildu dala. Hau da, 100 aurreikusten baziran, 18 bildu dabez, eta barriro dinot, Damoklesen ezpateagaz, ELGAN akordio batera heldu ondoren, kobrau ahal izan diran gehiegizko kopuruak itzuli beharko jakezala sektore teknologiko amerikar horreei bere momentuan.

Halanda ze, horrelan gagoz, eta gauza horreek hona ekarten deuskuzan Espainiako Gobernu dogu hau, eta, azkenean, guztiok ordaindu behar dogu, Bizkaiko eta Espainiako ekonomiako sektore askorentzat beharrezkoak ez diran ikareakaz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, lehenik eta behin, adierazo behar dot Foru Arau honek be Elkarrekin Bizkaiaren babesa izango dauela, lehen eztabaidatu dogun Foru Arauagaz jazo dan moduan; tira, Ekonomia Itunaren bidez Estaduagaz itundutako zerga bat dogu berbabide, eta Iruarrizaga jaunak esan dauen moduan, araudi, arau substantibo eta formal berberak arautzen dabe, ez dau-eta ixten zerga horri funtsezko aldaketarik egiten. Eta, tira, guk esan behar dogu, beste era batera balitz, ba harenbaten aldatuko genduala, arauak daukazan elementu batzuk hobetu leitekezala uste dogulako.

Nik ulertzen dot Ogasuneko diputaduak esan dauena, baina Ganbera politiko honetan be azaldu behar dogu zer ari garan bozkaten, ze edukin daukan arau horrek, eta zera uste dot..., tira, jarraitzen dauen jenteak jakin behar dauela zein dan talde bakotxaren jarrera. Eta, horrezaz gainera, uste dot garrantzitsua dala aitatzea hori onartzeak eta abian jarsteak badaukazala elementu garrantzitsuak. Nire eretxian, lehenengoa da jarduera ekonomiko bat arautzeko aukerea emoten deuskula, ekonomia digitalarena, datuaren ekonomiarena, ekonomia horregaz negozioa egiten ari diralako, luzaroan egiten ari dira negozioa, hatan be. Eta, orain arte, gure lurraldean egiten daben jardueratik sortutako irabazien arabera ordaindu beharko leukiezan zergak ez ordaintzea

laga jake konpainia digital handiei.

Ez dot ulertzen zergaitik konpainia horreek abantaila fiskalak izan behar dabezan, hemen, Bizkaian jarduten daben beste enpresa batzuek egiten daben negozioaren aurrean. Enpresa handi horreek gehienak ez dagoz hemen kokatuta eta ikuspegi fiskaletik be ez. Ez dagoz gure Lurraldean, baina irabazi handiak ateraten dabez; hemen sortzen bada balioa, tira, hemen ordaindu dagiela, baina ez gara edozein enpresaz ari. Zerga hau ordaindu behar izateko, enpresek 750 milioi eurotik gorako negozio-zifrea izan behar dau. Hau da, tamainu eta potentzial handiko enpresez ari gara. Eta, tira, uste dot enpresa horreei buruz berba egiten dogula. Ez dogu aitutzen eskinako harategia, ezta gure udalerrian izan geinken industria txikia be. Eta megakorporazio horreek Bizkaian finkatuta dagozan gure enpresakaz modu desleialean lehiatzen ari dirala uste dot, eta kezkatu egin beharko gindukez horrek.

Beste alde batetik, zerga-tasea aldatuko geunken gauza horreetako bat da. Ez da ezin dala onartu. Gure ustez, %3ko zerga-tasea dogu berbabide eta, tira, ez dago korporazio horreek daben benetako pisuaren mailan, ez negozio-bolumenari jagokonez, ez horrek sortzen dauzan irabaziei jagokenez. Baina, lehen esan deusuedan moduan, tira, neurri hori baliotsuagoa da beragaz dakarren aldaketa kulturalagaitik, bilketa-eraginagaitik baino. Eta hortxe dago, nire ustez, daukan indarra, hatan be; negozio-eredu barriak badagoz ekonomiaren digitalizazioaren barruan, uste dot zerga-figura barriak be sartu behar dirala. Arautze hutsunea onartezina da korporazio handiek ez dagien zergarik ordaindu irabaziak ateraten dabezan tokian.

Halanda ze, espero dogu hemendik denpora ez oso luzean, tira, Europak araudi hori bere gain hartzea harmonizau daiten, eta uste dot argitu behar dala hori hondinokarren gertatu ez bada enpresek fiskalidate gogorrari eusten jarraitu dagien presino fiskal barregarriagaz jarduten daben herrialdeak egiten ari diran presinoaren ondorioa dala, hain zuzen be (aurreko araudiaz berba egin dogunean jazoten zan moduan).

Eta Alderdi Popularreko bozeroaleari entzun ondoren, gai bategaz amaitu gura dot. Bizi garan sistema, sistema kapitalistea botere ekonomikoa dabenek arautzen dabe. Hori gizarte demokratikoetan gatxa da ulertzea zelan izan leiteken, demokrazia, boterea herriagan oinarritzen dala..., baina ez, ez da egia, kapitala daukangan oinarritzen da. Eta orduan, nire gizarte-behargin ikuspegitik, beharbada bullying-protokoloak martxan jarten hasi behar garala otu jat, zapaltzaileak alde batera itxi ahal izan daiguzan ekonomia kapitalistea deitzen ari dan horretan. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, hasteko, beste behin diputadu jaunari eskertu gura deusadaz emon dauzan azalpenak, lehen be esan dodan moduan, zehatzak izan dira-eta. Eta ez gara sartuko edukinetan, berak azaldu dauzalako. Garrantzitsutzat joten doguzan alderdiak nabarmenduko doguz, horreekaitik bozkatuko dogu-eta horren alde.

Aurreko puntuan lez, zezeilaren 8ko legeagaz onartu da aitutzen ari garan beste zergea itundutea, hau da, zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zergea, eta %3ko taseagaz zergapetuko dana. Sozialistok, jakina, aldeko botoa emongo dogu hainbat errazoigaitik.

Lehenengo eta behin, aurreko puntuan esan dodan moduan, subjektu bakotzak eremu bakotxean, kasu honetan Bizkaian, sortzen dauen negozioari jagokozan zergak ordaintzearen alde gagoz, eta, beraz, ondo etorria izan daitela.

Bigarrenik, BEZagaz bateragarria dan zeharkako zergea dalako, eta jarduera mueta horretan finkatutako enpresa handiei eragiten deuselako, Martínez andrea. Baleiteke zuk buruan daukazun familiaren bat be egotea, baina tira. Eta gero, beraz, zerga horren xede diran zergadunek bi baldintza bete behar dabez: euren negozio-zifrearen batez besteko zenbatekoa 750 milioi eurotik gorakoa izatea eta zerbitzu digitalen prestaziotik eratorritako diru-sarreraren zenbatekoa 3 milioi eurotik gorakoa izatea. Nik ez dot ezagutzen egoera horretan dagoan familiarik.

Y debemos someter a votación la evaluación del Decreto Foral Normativo. Por lo tanto, podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 46 votos en total. Han sido 37 votos favorables. No ha habido votos en contra, y ha habido 9 abstenciones. Por tanto, queda validada.

Y a continuación, pasaremos al turno de las exposiciones de los votos. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra. No va a intervenir.

La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Elkarrekin Bizkaiaren botoa Foru Dekretu hau onartzearen aldekoa izan da. Nire ustez, ezin zan beste modu batera izan, gaur egun bizi dogun testuinguruan elektrizidadearen prezioak ia-ia egunero egiten dau-eta gora. 2021eko amaieran koalizino-gobernuan energiaren prezioen gehikuntzeari aurre egiteko hartu ziran hainbat neurri luzatzen dauzan Dekretua da. Eta orain, Ukrainako eta Errusiako gerrearen testuinguruan egoera larriagotzen ari danez, beharrezkoa da neurri horreen ezarpena luzatzea, ahal dan neurrian, ea horrelan kontsumitzaileei eta enpresei argindarraren faturearen gehikuntzea arean moteltzen jaken. Halanda ze, ezin dogu besterik esan: Dekretu honek neurri positiboak daukaz eta orokorrean herritarrentzat onak dira.

Neurri horreek BEZaren eta Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren gaineko Zergaren gainean eragiten dabe. Bi zerga horreek orain arte ezin izan dira arautu Bizkaiko Ogasunean eta, beraz, Estaduak ezarritako arau berberen arabera arautzen dira. Baina ezin dogu ahaztu Gobernu honek, Bizkaiko Foru Gobernuak luzera kontsumitzaileen fakturan be eragina daben neurriak hartzeko gaitasuna daukala. Baina ezin da izan elektrizidadearen prezioak gora egiten jarraitzen dauen bitartean Iberdrolako presidentea dan Galan jauna ikustea esaten bere taldearen helburua dala 2022rako 4.000 eta 4.200 milioi euro arteko mozkin errekor garbia lortzea dala (Ukrainako gerreak eragindako energia-prezioen krisi-egoera gorabehera), era horretan akzinodunen dibidendua handituz. 2021eko irabazi garbia baino askoz be handiagoa.

Eta, egia esan, uste dot Gobernu honek gaitasuna daukala herritarrak be epe luzera nasaituko dabezan beste neurri batzuk bultzatzeko edo, gitxienez, sustatzeko, energia-enpresa publiko bat sortuta, edo gure lurraldeko trantsizino energetikoari aurre egiteko orain arte egiten ari dana baino modu irmeago baten bultzadeaz, gitxienez. Eta, batez be, Bizkaiko herritarren sufrimentua ez daiten bihurtu oligopolioko enpresen onura.

Gaur onartzen diran neurri horreek ondo dagoz, une txarra hobeto pasetan laguntzen dabe, baina ez deutsie arazoaren erroari aurre egiten; izan be, oligopolio energetikoari ez deutsagu mugarik jarri gura, eta asko kostetan ari jaku aurrera egitea autonomia eta burujabetza energetikoan.

Nire eretxian, bada garaia abian jarteko eta Madrili begiratzen egoteari ixteko, Bizkaiko herritarrak nasaitzeko neurriak hartzerakoan. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko. Buenos días de nuevo.

Zezeilaren 8ko 1/2022 Foru Dekretu Arauemailea aldatzen dauen maiatzaren 10eko 3/2022 Foru Dekretu Arauemalicia dogu eztabaidagai eta bozkatu behar dogu. Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ekoizpen Elektriakoaren Balioaren gaineko Zergan zerga-neurri batzuk luzatzen dira. Hori guztia elektrizidadearen prezioen igoerak sortutako egoerari erantzuteko. Egoera hori dala eta, ezinbestekoa izan zan ordenamenduan preminazko neurri arautzaileak sartzea, merkadu elektrikoan prezioak inoizkoen maximo historikoetan egonak sortu dauzan ezohiko egoereagaitik.

Espainiako Gobernuak alkarren hurrengo lege-dekretuak onartu ebazan, eta horreetan salbuespenezko neurriak ezarri ziran; besteak beste, BEZa %21etik %10era jastea (laster barritasunen bat egongo da horri jagokonez), 10 kW-eko potentzia arteko horniduretarako, eta Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Salmentearen gaineko Zergea aldi baterako etetea, Ogasuneko Foru Diputaduak bere azalpen laburrean adierazo dauen moduan.

Baina, horrezaz gainera, gitxieneko bizi-hornidurearen figura sortu zan, ezarritako aldi horretan kontsumitzaileak egon ahal ziran pobrezia energetikoaren aurrean gizarte-babeserako tresna moduan, elektrizidadeak handizkako merkaduan daukan prezioa gorabehera. Gitxieneko erosotasun-baldintzak bermatzen dauzan muga-potentzia ezarri zan, eta baita 6 hilebetez eten ezin dan hornidurarena be, fakturak be ordaindu barik itxita, Sektore Publikoaren Legeak jasoten dauzan lau hilebeteak igaro ondoren.

Elektrizidadearen gaineko Zerga Bereziaren murrizketa hori jasoten zan eta %5,11tik %0,5era murriztu zan. Egokitzapen horreek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikoan egin dira 2021etik hona.

Gasak nazinoarteko merkaduetan daukan egoerea eskaintzearen eta eskariaren arteko desorekek eragin dabela baieztetan danean, ez da exageretan eta ez da guzurrik esaten, espero zana baino bizkorrago errekuerau dalako orokorrean, eta hori ez da bat etorri ekoizpen-maila egokiakaz. Eta hori gitxi balitz, Ukrainako gerreak erregai fosilen prezioak handitu baino ez dauz egin nabarmen. Igaz 5 aldiz biderkatu zan gas naturala, eta martitik hona 10 aldiz biderkatzera daroan abiadura daroa. Urte bereko zezeilaren 23an, Ukraina inbaditu baino egun bat lehenago, petrolioaren prezioa 97,89 eurokoa zan, eta gasaren prezioa 88,3 eurokoa. Martiaren 22an, hilebete geroago, bi lehengaiak %40 eta %260 garestitu ziran.

Ziurbakotasunak eta elektrizidadearen prezioen aldakortasun altuak markautako egoera baten, epe laburrean handizkako merkaduan elektrizidadearen prezioa murriztera eta etxeko kontsumitzaileei eta enpresei laguntzea emotera bideratutako neurriak hartzeko aparteko eta preminazko beharra ekarri dau egoera horrek energiaren prezio altu horreei aurre egin ahal izateko, neurri egingarriakaz, eta ez guztiok entzuteko moduan egindako promes folklorikoakaz, ahuntza eskaileretan gora eta behera dabilela,

“ondo etorri, Marshall jauna” estilora.

Apurka-apurka, horrelan, Balio Erantsiaren gaineko Zergearen esparruan, salbuespenez behar egin zan, aldi baterako bazan be, aitatutako %10eko tasa murriztuaren luzapena ezarteko.

Zoritxarrez, beharbada batzuk poztu egingo ziran orain ameskerietaz berba egin ezkerro, baina, esaterako, Iberica-ren salbuespena ekarri geinke hona, daborduko hemen dagoana, eta gasagaz sortutako elektrizidadearen prezioa orduko 48,8 euro/megawattera mugatzen dauena, hau da, guztiok egoera guztiz zentzunbakoari ahalik eta ondoen aurre egin ahal izan degiogun pentsauta dagoan neurria. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

El presente Decreto Foral Normativo tiene por objeto modificar el Decreto Foral Normativo 1/2022, de 8 de febrero. De hecho, se amplía el plazo para la aplicación de las medidas recogidas en dicho Decreto Foral Normativo. Afecta a dos impuestos: el Impuesto sobre el Valor Añadido y el Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica. Ambas, competencias estatales. Y nos encontramos de nuevo con nuestra falta de soberanía para decidir sobre todos los impuestos.

Sobre los impuestos indirectos no podemos tomar decisiones. Como hemos denunciado muchas veces, no podemos cambiar nada, solo copiar lo que el Estado ha decidido. El primer motivo de nuestra abstención ha sido una postura de reivindicación de la competencia para tomar decisiones sobre todos los impuestos.

Pero si analizamos su contenido, ¿qué ha acordado el Estado? No hay ninguna novedad. Se prorrogan las medidas vigentes. Esta es la tercera prórroga. Y además, se prorrogan hasta la semana que viene, el 30 de junio. Así que, de nuevo, una vez que lo decida el Estado, tendremos una nueva prórroga.

Por lo tanto, lo único que se hace es prorrogar las viejas medidas, y esa ha sido la segunda razón para nuestra abstención.

Y, además, estas medidas no han funcionado. No ha funcionado la reducción del IVA, por eso se está planteando ahora el 5%, y la suspensión temporal del Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica tampoco ha logrado frenar la subida del precio de la electricidad.

Como ya dijimos en anteriores ocasiones, el abaratamiento del precio de la electricidad pasa, por un lado, por limitar los beneficios del oligopolio eléctrico; y por otro, por dar pasos hacia la creación de una empresa eléctrica pública. Y ustedes dirán que esas no son nuestras competencias, y es cierto, pero ya tenemos competencias para combatir el oligopolio eléctrico, y les haré una propuesta, a ver si la próxima vez la traen.

Iberdrola celebró el pasado viernes su Junta General de Accionistas en la que explicó que los beneficios obtenidos en 2021 han sido de 3.885 millones de euros

(un 8 % más que en 2020), y que esperan alcanzar entre 4.000 y 4.500 millones de euros en 2022. Y aprobaron el reparto de dividendos entre las y los accionistas. Y mientras tanto, la factura de la luz sube sin cesar.

Ante esto, ¿la Diputación Foral de Bizkaia no puede hacer nada? Sí. La Diputación Foral de Bizkaia es competente para exigir a las empresas que tienen grandes beneficios, al igual que Iberdrola, hagan una aportación extraordinaria en el Impuesto de Sociedades, por ejemplo. Traigan una Norma Foral de esas características y la debatiremos. O puede modificar la norma y exigir la aplicación del tipo impositivo sobre los beneficios. Antes también hemos estado debatiendo acerca de las competencias. Tenemos competencias y las tenemos que utilizar, porque luego, estableciendo una aportación extraordinaria, con el dinero obtenido podemos aprobar o crear un fondo para ayudar a las vizcaínas y vizcaínos en situación más vulnerable. Eso lo podemos hacer. Ya es hora de tomar medidas audaces, no de copiar lo que hace el Estado. Utilicemos la competencia fiscal que tenemos para distribuir la riqueza.

Los beneficios de Iberdrola no se pueden repartir únicamente entre los/las accionistas. Que pague a la Hacienda de Bizkaia en función de los beneficios y utilicemos ese dinero para ayudar a las vizcaínas y vizcaínos que no pueden pagar la factura de la luz. Tenemos esta posibilidad, sin esperar a lo que decida el estado, incluso parece posible que el estado aplique una medida de este tipo, pero entendemos que es competencia nuestra y que la podemos aplicar aquí, y les animo a que tomen este tipo de medidas para ayudar a los y las vizcaínas.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

2022ko maiatzaren 10eko 3/2022 Foru Dekretu Arauemaileak zezeilaren 8ko 1/2022 Foru Dekretu Arauemailea aldatu dau. Azken honek Balio Erantsiaren gaineko Zergeari buruzko zemendiaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatu eban, inportazioei eta hornidura batzuei lotutako aldi baterako salbuespenei jagokenez, eta tributu-arloko neurri jakin batzuk luzatu ebazan Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan. Foru Aldundiak defendidu egin dau eta gure taldeak horren alde bozkatu dau, nahi-ta beste batzuetan adierazo dogun ona dala gogoratzea Euskal Autonomia Erkidegoa arautzen dauen Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoa) 23.4 artikuluan eta 26. artikuluan ezarten dauela, hurrenez hurren, Estatuak ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautuko dabezala Balio Erantsiaren gaineko Zergea eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergea.

Aitatzen eta eztabaidatzen ari garan Foru Dekretu Arauemaile honen xedapenek bi alderdi dabez ardatz. Lehenengo eta bat, BEZari jagokonez, COVID dalakoaren krisiari erantzuteko hartu ziran inportazioei eta hornidura jakin batzuei jagokezan aldi baterako salbuespenei jagokenez: BEZaren %10eko zerga-tasea ezartea energia elektrikoaren erkidego barruko emoteei, inportazioei eta eskuraketei, garagarriaren 27ko 6/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 1. artikulua jasoten dauena (Foru Dekretu horren bidez, presazko neurriak hartu ziran Balio Erantsiaren gaineko

Zergan eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan); neurri horreek 2022ko bagilaren 30era arte luzatuko dira. Eta bigarrenik, bigarren artikulua aldaketa, 2022ko ekitaldian Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehazteari buruzkoa.

Foru Dekretu Arauemaile horrek daukan edukinari erreparau ezker, ikuspegi soziala dauka, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko gure zerga-sisteman ezinbestean egokitu beharreko zerga-neurriak jasoten dauz. Horregaitik, Foru Aldundia behartuta dago Foru Dekretu Arauemaile hori emotera eta horretarako ahalmena dauka Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martiaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluan jasotako baimenaren arabera.

Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatzeko, Euzko Abertzaleak taldeak aitaturako Foru Dekretu Arauemailearen aldeko botoa emon dau. Gogoratu energia elektrikoaren prezioak ditugula berbabide, eta gogoratu krisi energetikoak eta horren prezioak zerikusia dabela, batez be, Europako burujabetasun energetikoagaz eta Sobietar Batasunaren oinordekoek Europari egindako erasoagaz.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Arana Requena. Avanzaremos con el Orden del Día, y el sexto punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2022/0000856](#))

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: Modificación de la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio, reguladora de la Iniciativa Normativa Popular.

Documento **Principal:** ([R.E.11/E/2022/0000898](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (19A)

Expediente: ([11/A/07/0003388](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Arau Proposamena ([11/E/2022/0000856SE](#))

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: Araugintzarako herri ekimenaren araupe-tzailea den ekainaren 28ko 1985/4. Foru Arau aldatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000898SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (19A)

Espedientea: ([11/A/07/0003388](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Buenos días a todos/as. “Bonjour”, “good morning”, Rementeria jauna, zagozan lekuan zagozala.

Hasteko, gogoratu gura dot industria barik ez dagoala etorkizunik.

Hori posible egiten daben beharginak dira horren oinarria, eta horregaitik gagoz euren alde. Hemendik Bizkaiko metalari gure babesa bialtzen deusagu, baina baita Arabako metalari, Kantabriakoari, Coruñaakoari, etab.

Tira, goiazan maminera. Ez dot ezkutaiko Aldundiak ekimen hau kentzea eskaini deuskula. Aldundiak konpromisoa hartu eban proponiduten doguna kontuan hartzeko, gaur defendiduten ari garan ekimenak aitatzen dauen Araua eguneratzeko, baina, tentagarria bazan be, ez dogu onartu bi errazoi errazakaitik. Alde batetik, ez eben konpromisorik hartzen funtsean, ez eben gure aldaketa-proposamenean egiten doguzan proposamenean inguruko konpromisorik hartzen; eta, gero, beste alde batetik, ez dot ezkutaiko Aldundiaren konpromisoak alde batera ixten ebala gure taldea.

Araudi hau Aldundiaren legegintzaldiko arau-plangintzan ez dagoan arren, bat-batean onartu dabe eguneratu egin behar dala, baina ez dabe onartu geu ginala arau hori eguneratu behar zala ohartarazo genduanak.

Tira, proponidu dogun horretan sartuta, Herri Ekimenaren araupetzaila dan bagilaren 28ko 1985/4 Foru Araua eguneratzea da defendiduten doguna. Ganbera honetako ordezkari batzuk Arau horren ondoren jaio dira; kontuan hartzekoa da.

Tira, proposamen honen helburua bikotxa da. Alde batetik, zeozer erraza, gaur egungo esparru-araudira egokitu daitela. Eta, esate baterako, 2016an Eusko Legebiltzarrean Legegintzako Herri Ekimenaren Legea eguneratu zan. Orain, LHE batek Euskadi osoko 10.000 herritarren sinadurak behar dauz, eta Araugintzarako Herri Ekimen batek Bizkaian bakarrik 20.000 sinadura behar dauz Ganbera honen aurrean. Hau da, LHE baterako Euskadi osoko 220 biztanleko batek sinatzea nahikoa da; AHE baterako Bizkaiko 57 personatik batek sinatu behar dau. Uste dogu desbardintasun bat dagoala. Horregaitik, Bizkaia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren erdia dala kontuan hartuta, sinadura-eskaera hori (20.000 sinaduratan dagoana) 5.000ra murriztea baizen erraza zan proponiduten genduan, hau da, LHE batek eskatzen dauenaren erdira jastea.

Eta gero, beste alde batetik, beste kontua, jakina, sinadura-kopuru handi horrek berori erabilteko gogoia kentzen dau, baina erabilteko gogoia be kentzen dau dagoanik be ez dakigulako.

Arau honen ahalmen arautzailea nahiko mugatua izateaz gainera (nahiko mugatua da, eta mugatua da LHE baten aldean), ez da ezaguna. Arau bat da, herritarrek parte hartzeko tresna bat eta, gure ustez, ez da ezaguna. Hain zuzen be, hori Batzorde Instituzionalean galdetu genduan orain dala 3 hilebete inguru, eta Jaurlaritzek esan euskun ez darabilela buruan hori eguneratzea, ezta ezagutzera emotea be, ez eta horren inguruko publizidadean inbertidutea be.

Tira, ba, beharrezkoa dala uste dogu. Halanda ze, gainerako puntuen inguruan, ba ikusiko dozuen moduan, eguneratze hutsak baino ez dira. Barrero dinogu, 1985eko arau bat da. Egin dau euri nahikoa ordurik hona. Gauzak aldatu dira. Daborduko ez darabilguz pezetak, euroak baino. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala ez da Bizkaiko Jaurerriko Boletin Ofiziala, ezpada Bizkaiko Aldizkari Ofiziala. Eguneratzeak baino ez dira. Gure ustez, gainerako puntuetan proponiduten doguna ulertzekoa da.

Eta, tira, badaukagu Euzko Alderdi Jeltzalearen abisua, hau da, gure proposamenaren izapidetzea ez dabela babestuko ez dogulako onartzen Aldundiaren proposamena. Baina uste dot une honetan pelotea bere teilatu gainean dagoala, eta kontua ondo erraza da. Alde batetik, eta gure proposamena gaurkoan bertan behera ixten badozue be, uste dot Osoko Batzar honetan daborduko berba egin dala tresna horri buruz, eta hori proponiduten genduanaren erdia zan, horri buruz berba egitea baino ez, ezagutzera emon

daitela. Nire ustez, aztergai hau izapidetu izanagaz, daborduko berba gehiago egin da Arau horretaz, tresna horretaz, azken urteotan egin dana baino.

Eta gero, beste alde batetik, uste dot Aldundia txarto geratuko litzatekela Arau honen eguneratzea negoziatan hasi, eta gero ez baleu tramitauko egoen kontu hutsakaitik.

Eta, tira, gure aldetik, zuon ikuspuntuaren zain geratzen gara.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Buenos días a todos/as.

Ezaguna da Espainiako Konstituzinoak, atariko artikuluan, herritarrek bizitza politikoan parte hartzeko sistema bat diseinetan dauena. Sistema horrek lehen artikuluan ezarten dauz printzipioak, seigarren artikuluan ezarten dauz bideak, eta bederatzigarrenean egikaritzea bermatzen dau. Parte-hartze horretan, demokrazia ordezkatzailerako mekanismoak lehenesten dira zuzeneko demokraziako ginetik, nahi-ta biek jatorri bera daben oinarrizko eskubide lez Konstituzinoaren 23. artikuluan.

Herritarrek araugintza-prozesuan parte hartzeko printzipioaren garapena 87. artikuluan zehaztuta dator. Artikulu horrek, hirugarren puntuan, martiaren 26ko 3/1984 Lege Organikoaren bidez araututako Legegintzako Herri Ekimenaren egikaritze-moduak eta betekizunak zehazten dauz, eta Konstituzinoaren agindua betez, ekimen horren esparru juridikoa arautzen dau.

Gure lurralde-eremuan, Autonomia Estatutuak lurralde historikoen eskumen eksklusiboa ezarten dau, 37. artikuluan 3.a paragrafoan. Eskumen horren barruan sartzen da bagilaren 28ko 4/1985 Legean gure lurraldean gauzatutako eta Batzar Nagusien Erregelamenduan jasotako Legegintzako Herri Ekimena.

37 urte igaro dira Foru Arau hori onartu zanetik eta, hasiera baten, ez dogu uste araudia eguneratzea baztertu leitekenik, beti be kontuan hartzen badogu adostasunerako joera handia sortu beharko leuken arau horreetako baten aurrean gagozala, tresna garrantzitsua da-eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eta, batez be, Araugintzarako Ekimena lako zeregin garrantzitsu baten.

Proponiduten dan aldaketea ez da inondik eta inora garrantzi gitxiko kontua, erabat kontrara, Arauaren funtsezko elementu bati eragiten deutso-eta, Araugintzarako Herri Ekimena sinatzeko behar dan hautesle kopuruari berari, hain zuzen be. Ekimenean gaur egun dagoan kopurua laurden bat jastea proponiduten da, 20.000 izatetik 5.000 izatera igarota.

Gitxienez zalantzarria dala emoten dau, gaur egun Bizkaian gure Autonomia Erkidego osoan baino bi aldiz sinatzaile gehiago eskatzea, eta horrek arauaren aldaketea justifikau leike.

Beste aldaketei jagokenez, gure eretxian, artikulua jakin batzuen

erreferentzia baino formula egonkorragoak dagoz, aldakorrak izan leitekezanak, eta gastuei jagokenez, egokitzapenak logikatik aldenitu egiten gaitu.

Horregaitik guztiagaitik, ekimen honen izapidetzearen aldeko botoa emongo dogula aurreratzen dot, eta zuzenketen bitartez jagokozan ekarpenak egingo doguz. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko. Herri-ekimena demokrazia zuzeneko mekanismo bat da. Horren bitartez herritarrei eskubidea emoten jake botere legegileari, hau da, Ganbera honi lege-proposamenak egiteko (gure kasuan, arau-proposamenak). Gure kasuan, esan dan moduan, bagilaren 28ko 4/1985 Foru Araua da.

Elkarrekin Bizkaiak hori aldatzea proponidu dau, batez be lau alderditan: Batzar Nagusien Araudiari egokitzea Foru Arauaren 1. artikulua, Erregelamenduaren beraren artikuluari erreferentzia zehatza eginda; izan be, 4/1985 Foru Arau hori, lehen esan dan moduan, Batzar Nagusien gaur egungo Erregelamendua aldatu aurretik onartu zan eta, beraz, ez dator bat indarrean dagoan Erregelamenduaren artikuluen zerbakiakaz.

Bigarrenik, araudiaren ekimena gauzatzeko behar diran hautesleen sinadura-kopurua aitatu diran kopuruetan aldatuta geratu daitela proponidu dabe. Gastuen konpentsazioaren gehieneko zerbatekoa eguneratzea, uneko txanponaren arabera; pezetetz berba egiten zana eurotan jartea. Eta, azkenik, azken xedapenaren aldaketa bat proponidu dabe, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren aitamena eguneratzea, lehen Bizkaiko Jaurerriko Boletin Ofiziala zan-eta.

Egia esan, alderdi horreek oso kontuan hartu beharrekoak dira, 37 urte igaro diran ezkerreko foru-arau hori onartu zanetik. Izan be, urte honeetan Batzar Nagusien Erregelamendua aldatu eta Bizkaiko Aldizkari Ofiziala erakundetu da, txanpon-aldaketa bat bizi izan dogu, eta eskubideak, babes-eremuak eta Arauan (kasu honetan, 1985eko arauan) jasota ez egozan beste hainbat alderdi arautzen dauzan araudi- eta legegintza-esparrua aldatu eta zabaldu egin da.

Halanda ze, egokia iruditzen jaku gogoeta horreek serio hartzea, nahita uste dogun askoz hobeto dala Foru Arau barri osoago, argiago eta gaurkotuago baterantza joatea, gainera, horrek Herri Araugintzako prozedurei eta ekimenei publizidade eta gardentasun handiagoa emon leikioelako. Eta hori Foru Arau honen aldaketa puntualak sustatzea baino errazagoa eta erabilgarriagoa dala uste dogu, zaharkituta dagoala ikusten dogu-eta.

Berez, atxikimenduak modu elektronikoan, seguruan eta egiaztagarrian jasoteko aukerea emon leike, herri-ekimena arautzen dauen legedia aldatzeko beste premina batzuk identifiketako, etab.

Horregaitik, proponiduten jakuna interesgarrizat jotzen dogun arren, eta eguneratu beharko geunkezan beste hainbat foru-arau egungo dirala ohartu arren, proposamen honen aurka bozkatuko dogu, badakigulako hilebete batzuk barru foru-arau osoago eta egokiago bati buruz eztabaidatuko doguna. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Buenos días a todos/as. Muchas gracias, señora Presidenta.

En el día de hoy el grupo Elkarrekin Bizkaia presenta la Proposición de Norma de actualizar la Norma Foral 4/1985, de 28 de junio, reguladora de la Iniciativa Normativa Popular; concretamente, propone modificar tres artículos.

Y está bien, la propuesta tendrá nuestro apoyo.

Izan be, idazteko eran Bizkaiko “ciudadanos” bakarrik aitatzen dauen Foru Arau batek, “ciudadanía” aitatu beharrean, ez dagoala eguneratuta adierazoten dau.

Y la propuesta que hoy trae a esta Sesión Elkarrekin Bizkaia permite, en efecto, abordar en profundidad la participación real.

Izan be, gure eretxian, kontua ez da Araugintzarako Herri Ekimena araupetzen dauen Foru Arau bateko artikuluko batzuk aldatzea, ezpada Batzar Nagusi honeen egiteko erea aldatzea. Gobernantza modu osoa aldatu behar da, herritarren parte-hartzea ez da-eta metodologia bat, ezpada demokraziaren kalidadea hobetu gura dauen aukera politiko bat. Hori da, gure ustez, aldatu behar dana.

Y en este sentido, el Gobierno Foral, como hemos demostrado en numerosas ocasiones, pone en marcha iniciativas interesantes para mejorar las cosas expresando palabras bonitas que además publicitan bien, y luego quedan en un bluf, se meten en un cajón. Cuando la oposición saca el tema ustedes dicen todo el tiempo: “estamos trabajando en ello”. Han transcurrido 4 años desde que adoptaron el compromiso tras una comisión.

En la anterior legislatura se creó un grupo de trabajo sobre participación en el que se trató el tema. En él participaron personas expertas, como la directora general del Observatorio de Bizkaia, un catedrático de derecho internacional privado, un promotor de normas de foro de participación en otros países, otro que fue máster responsable de participación y comunidad de desarrollo de la universidad, y un largo etcétera.

En sus intervenciones escuchamos cosas como, por ejemplo: el catedrático Juanjo Álvarez decía que, a la hora de definir la participación real, existe la posibilidad de hacerlo en base a 4 factores: información, debate, decisión y responsabilidad.

Otra persona decía que es muy importante pasar de la teoría a la práctica, y dando a conocer las posibilidades de participación, los procesos y las herramientas.

Alberto de la Peñak, Euskal Herriko Unibersidadeko gobernantzako eta ikasketa politikoetako masterraren zuzendariak, esaterako, honako hau inoan: herritarrek informazino barik eta gaia ezagutu barik parte hartzeko eredu bat “kosmetika-ariketa” bihurtzen dala hartutako erabakiak legitimetako. Ordezkaritasun eskaseko egoerak sortzen dira eta, batzuetan, prozesu horreen instrumentalizazio alderdikoia, baita aukera autoritario populisten aldetik be, eta horrek nekea eta mesfidantzea sortzen dau, epe

labur eta ertainean benetako emoitzarik ez dagoalako.

Persona horreek guztiek, gaian adituek, parte-hartzearen eta ordezkartzearen arteko osogarritasunaren beharra eukien berbabide. Eta orain, nik zera galdetzen dot: sinisten al dozue? Bat al zatoze beharizan horregaz?

Igor Ahedo EHuko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko zuzendariak adierazo eban herritarrek parte hartu gura dabela eta badakiela zelan parte hartu. Egin behar dana da erraztu, horretarako baldintzak erraztu metodologiei, tresnei eta abarri jagokenez. Adierazo ebanez, parte-hartzeak legitimizazioa eta eraginkortasuna areagotzea ahalbidetzen dau, modu partekatuan eregitea, desbardintasunak gainditzea, baina, batez be, herritarrak eregitea eta demokrazia demokratizatea.

Ahedoren eretxiz, gardentasuna ez da parte-hartzea, nahi-ta hemen zagozen batzuek halan uste dozuen. Kontuak emotea ez da parte-hartzea. Gobernu irekia izatea ez da parte-hartzea.

En la anterior legislatura, en el informe que se realizó tras varias intervenciones de la citada Comisión, se pueden leer unos análisis muy apropiados. Recomiendo su lectura para las personas que no lo hayan leído.

La pregunta que hoy quiere traer Euskal Herria Bildu a esta Asamblea es la dirigida a quienes forman el Gobierno Foral:

Zer dago Foru Gobernuak orain dala lau urte hartu, bazter guztietan argitaratu eta iragarri eban konpromisoaz?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ildia Olangua. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Buenos días y muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Bueno, he escuchado palabras bonitas y teorías bonitas en los anteriores turnos, pero este no es un debate de políticas de participación. Aquí, hoy, ahora, nos corresponde aprobar o no una toma en consideración. Es una propuesta de aprobación de toma en consideración, una propuesta realizada en este caso por Elkarrekin Bizkaia. Y aún no es una Propuesta No de Norma. Lo que hoy aquí aprobamos es tomar en consideración la propuesta que hace Elkarrekin Bizkaia.

En el primer punto de hoy concretamente se ha aprobado la enmienda realizada a una Norma Foral, como consecuencia de una propuesta de toma en consideración, sin ningún tipo de problema, que en su día fue una iniciativa de EH Bildu. Y nosotros/as, también en este caso, hemos tenido la misma reflexión y actitud para este planteamiento. Porque no viene en contra de nuestros planteamientos, porque no viene en contra de las propuestas y compromisos que hacemos o adoptamos ante la ciudadanía, porque están basados en nuestras competencias, y porque nosotros/as también vemos con buenos ojos las consecuencias que tienen en las personas afectadas.

Examinamos las propuestas con ese criterio, y en base a ello las

aprobamos o no, de manera sincera e igualitaria.

En este caso, Elkarrekin Bizkaia propone modificar tres artículos y una disposición final de la Norma Foral 4/1985, de 28 de junio. Ha dicho usted: ajustar la normativa de esta Junta General en lo que afecta a la cantidad de firmas, el tema del Boletín y adecuar la cantidad, la cantidad económica. Esa es la propuesta de aprobación de la toma en consideración que traen ustedes aquí.

Hemos examinado la propuesta, hemos dialogado con el grupo que ha hecho la propuesta y les hemos dicho que estamos de acuerdo con la necesidad de modificar estos tres artículos. Lo hemos manifestado claramente. Seguramente no textualmente en la forma en que ustedes han propuesto, tendremos alguna matización, pero eso lo podríamos corregir a través de enmiendas, y para eso habría tiempo. Pero sí que vemos que esos artículos hay que modificarlos.

Además de esas tres modificaciones, y así lo hemos expresado, esta Norma Foral tiene aspectos a mejorar y que deben modificarse. Por eso, en este ejercicio de diálogo y voluntad, les hacemos una propuesta clara, retiren la propuesta y nos comprometemos a que, a lo largo de este año, la Diputación formule una propuesta de Norma Foral en estas Juntas Generales.

Ese ha sido el planteamiento, transparente, modificando dichos artículos concretos, y modificando, además de ellos, otros artículos más que deberán actualizarse y modificarse. Utilizando el procedimiento ordinario, cumplimentando los trámites pertinentes, emitiendo informes, y teniendo en cuenta los aspectos que haya que tener en cuenta. Posteriormente, recoger la propuesta de la Diputación, publicación, alegaciones de la ciudadanía, enmiendas de los grupos, debatir en estas Juntas Generales, consensuar o no, y aprobarlo.

Eso era lo que proponíamos, porque consideramos que es más adecuado en forma. ¿Por qué de esa manera? Porque conseguiríamos más que lo que podemos conseguir con su propuesta de modificación si elaboramos una Norma Foral mejor y respetando todas las garantías. ¿Cuál ha sido su respuesta ante nuestra propuesta? Pues lo hemos visto aquí. No lo han retirado, y esta propuesta tendrá nuestro voto en contra.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias.

Tira, konpromisoak daukana horixe da, konpromisoa dala, partekatua da. Eta, jakina, alde batetik, Aldundiaren eskaintzea egoan, hau da, gure ekimena kentzea onartu behar genduan, baina, beste alde batetik, ez egoan konpromisorik beste aldetik. Eta horrek kezkatu egiten ginduzan, ez egoan konpromisorik egiten genduazan proposamenetako batzuk behintzat onartzeko, Aldundiak ikusiko dauela baino ez inoan.

Baina, jakina, ni hasierako puntura joango naz barriro. Hori ez egoan Aldundiaren planen artean. Lehenik eta behin, zelan bermatuko deustazue ez dozuela zuenganatuko protagonismo osoa, ez dot-eta ukatuko hemen egoen lehia bat dagoala. Hau da, ekimena gurea da, baina ikusi dogu arau-akats bat egoala, zeozelan eguneratu behar zana, baina beste alde batetik, aldi berean Aldundiak ez dau bere gain hartzen

proponiduten doguzan konpromisoetako bat bera be, sinaduren bidez jenteak foru-erakundeetan parte hartu dagian laguntzea baizen erraza dan konpromisoa, berbarako.

Gogorarazo gura dot, udalen ondoren, herritarrakandik hurren dagoan erakundea garala eta, halanda be, sano opakuk gara, opakuenak edo, behintzat, herritarrentzat bertara heltzeko erraztasun gitxien erakusten dauen erakundeetako bat.

Uste dot hori erraztu egin behar dala, eta ez dot ukatuko eta barriro dinot ekimen honegaz lortu gura genduanaren erdia lortu dogula, hau da, gaur behintzat tresna hori badagoala aitatzeta, zuek, tira, Aldundiak, lehen esan dodan moduan, Batzordean onartu ebalako tresna hori ez ebalu sustatuko. Tresna hori badago, baina hor dago, kajoi baten gordeta. Ba, tira, gaur behintzat, oposizinoko talde minoritario batek kajoitik ateratea lortu dau.

Eta gero, beste alde batetik, ekimen hau kentzen ez badogu be, jakin gura dot ea Aldundiak aurrera eroango dauen ala ez, horrek gardentasunagaz eta herritarren parte-hartzeagaz daukan konpromisoa erakutsiko leukelako arean.

Eta bukatzearren, nik hausnarketa hau egiten deusuet: zenbat Araugintzarako Herri Ekimen egon dira legealdi honetan? Nire ustez, honetan bat be ez, eta uste dot aurrekoan be ez dala horrelangorik izan. Horrek zer pentsau emongo leuskit, zergaitik emoten dan hori.

Uste dot erakundeen lana, eta arabere gehiago Aldundiarena, parte-hartzeagaz eta gardentasunean daukan konpromisoagaz, barriro dinot, erraztea da. Lehenengo eta behin ezagutzera emotea eta, tresna egon badagoan ezkerro, herritarrek eskura euki dagiela erraztea. Eguneratu gura ez bada edo gaur onartzen ez bada, uste dot Gobernu osotzen daben taldeek zertan egiten daben huts erakusten dauela. Gure aldetik, hori da guztia.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Escalante Mesón. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko.

Tira, nik ez dakit zertan egiten dodan huts edo zertan Alderdi Sozialistek. Baina egia da gauza bat onartzen deusueguna, eta beste legegintzaldi batzuetan be esan dogu, arauen eguneratze guztiak (erregelamenduan, etab.) foru-arau batzuk zaharkituta geratu dirala ikusiarazoten deusku, artikulauakaz bat ez datozalako, egungoak ez diran terminoetan adierazoten diralako, genero-ikuspegirik ez dagoalako horreetako bakar baten be. Eta, beraz, ona da hori guztia berreskuratzen joatea eta egungoa egitea.

Eskatzen doguna, edo eskaintzen doguna daborduko egon dagoan Arauaren aldaketa puntual huts bat baino askoz gehiago da, hau da, Foru Arau barri bat egitea. Izan be, besteak beste, adierazo deusuet zuek aldaketa-proposamenean jasoten ez dozuezan eta beharrezkoak diran alderdi batzuk dagozala, jaso beharreko sinadura kopuruaren zifrak eztabaidagai izateaz gain; telematikeagaz eta abarregaz zerikusia daukan guztia, berbarako, eta baita lan-esparruak be. Eta esan deusuegu urte honetan zehar aurkeztuko dogula.

Horrek esan gura dau zuek ez badozue kentzen eta guk kontra bozkatu ezkeru ez dogula egingo? Tira, beharizana barruntau ezkeru, eta zoriondu egiten zaituegu beharizana hori barruntau dozuelako, ez gara hain zoroak Bizkaiko Erkidegoaren onerako izango dan arau barri bat beteten ez amaitzeko; arau arinagoa, eraginkorragoa, eta gure araudi-leggedian derrigortzeko..., derrigortzeko ez, eragiteko gurariari erantzungo deutsana.

Batak bestera eroaten ez bagaitu, hau da, orain gure botoan ezetz esan arren (zure proposamena sano mugatua dalako) egin behar doguna egiten jarraitzeari ez deutsagu itxiko, hau da, araudi guztiak eguneratu, egunean jarri eta, batez be, genero-ikuspegia kontuan hartu egiten dogun guztian. Ez eizu horren bildurrik izan.

Besterik ez, eta nahikoa bada, ondo, eta ezpabere, sentiduten dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias.

Bueno, he finalizado mi primera intervención haciendo referencia al compromiso adoptado por los partidos que sustentan el Gobierno Foral hace ahora 4 años, y comenzaré esta segunda intervención leyendo cuáles eran esos compromisos porque, señor Lekerikabeaskoa, ha manifestado que mi primera intervención no tenía relación con el tema de hoy, y le demostraré ahora mismo que sí la tiene.

El primer compromiso que ustedes adoptaron hace 4 años decía lo siguiente: “Las Juntas Generales se comprometen a adoptar el suficiente compromiso para revisar y mejorar los procesos de actuación de las mismas, sin perjuicio de las presentes recomendaciones. Para ello, crearán nuevos instrumentos y canales de participación ciudadana, introduciendo cambios y mejoras en las actuaciones ya existentes, como por ejemplo, empezar a reflexionar sobre la necesidad de actualizar la Norma Foral 4/1985, de 28 de junio, reguladora de la Iniciativa Normativa Popular”. Compromiso adquirido hace 4 años.

Bigarrenik, bigarren konpromisoa honakoa zan: “asimismo, las Juntas Generales instan a la Diputación Foral de Bizkaia que presente una propuesta de trabajo, en un plazo de 3 meses desde su aprobación en el Pleno para dar respuesta a las recomendaciones que constan en este dictamen”.

Hortxe daukazue Bizkaiko herritarrakaz kitatu bako zorra: herritarren parte-hartzea moduko zeozeri garrantzia emoten jakon itxurea egitea, eta konpromiso haretatik igaro diran lau urte honeetan ezer egin barik egotea. Horrek asko dino Gobernu honi buruz, eta asko dino Gobernu honek garrantzia emoten deutsanaz. Uste dot hemen gagozan guztiok dakigula honakoa: “hobe ustekabeen harrapetea huts egitea baino”.

Tenemos que abordar el tema y la propuesta de Norma Foral que ha presentado Elkarrekin Bizkaia nos da la oportunidad de hacerlo. En cualquier caso, entendemos que debemos analizar el tema en profundidad, no se trata solo de bajar el número de firmas, o aumentar las subvenciones. El fomento de la iniciativa popular exige más. La ciudadanía tiene que ver que el hecho de presentar iniciativas populares sirve para algo. Necesitamos un cambio cultural y aceptar de verdad la participación ciudadana sin que sea solo una cuestión de imagen.

Y, por último, quiero decir que nos alegramos, nos alegramos de que, aunque sea 4 años tarde, el trabajo de la oposición dé sus frutos. Hoy se ha adoptado el compromiso de renovar la Norma Foral en los próximos meses, fruto de la labor de la oposición. Esperamos que los próximos meses exista la posibilidad de un trabajo conjunto entre todos y todas, tal y como he manifestado, nos alegramos de ello. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ildia Olangua. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

No se trata de una cuestión de protagonismo de egos, señor Escalante. Pienso que el valor que le damos a la palabra usted y yo es diferente. Falta de compromiso. Yo manifesté el compromiso en la reunión de grupo. Hoy, desde este atril he señalado cuál era ese compromiso, y si tiene algún ejemplo de algún compromiso adoptado que no lo he cumplido tráigamelo y entonces sabremos lo que es y no el compromiso en base a la palabra dada.

La Diputación Foral de Bizkaia forma parte de la alianza de gobierno abierto, ya se dijo aquí hace poco: las tres diputaciones, las tres capitales, junto con el Gobierno Vasco. Ahí se están dando pasos hasta el mismo día de hoy, no estamos esperando a nadie, no estamos esperando a la salida de la oposición para hacer esas cosas, día a día se están dando pasos en eso, y ahí también situamos la necesidad de adaptar la Norma Foral, o la necesidad de actualizarla.

No hay un cambio dentro de los calendarios forales, esa es una característica de nuestra forma de ser, y aunque no lo haya, si vemos que es adecuado incluirlo en el calendario lo hacemos, y ese era el compromiso que planteábamos. Pero ya he señalado que vemos un camino más acertado, y lo he dicho sinceramente, y creo que todos y todas lo han comprendido, que la tramitación, la tramitación adecuada es tramitarlo de forma ordinaria, porque hay que tener en cuenta otros aspectos que si lo encauzamos de esta manera no se tienen en cuenta: el lenguaje inclusivo, la oficialidad de lenguas, la protección de datos personales, la recepción o la regulación de la administración electrónica, diversos informes, la publicidad, las alegaciones de la ciudadanía... todo esto se garantizará si la modificación de esta Norma Foral la realizamos por el procedimiento ordinario, y si no lo hacemos así, tenemos la opción de presentar enmiendas, pero con enmiendas no conseguiremos corregir esta Norma Foral. Y frente a ello creo que tampoco en esta ocasión han actuado de forma adecuada, señor Escalante. Ez zarie maminean sartu kasu honetan.

Han priorizado el pequeño protagonismo frente al hecho de realizar la Norma Foral adecuada, y no consideran retirar la propuesta porque no aceptan la propuesta que les hemos hecho. En el fondo, ustedes saben que nuestra propuesta es mejor, pero lo que he dicho, ahí está ese protagonismo de 5 minutitos para exponer su propuesta y desde mi punto de vista hoy aquí no han conseguido mejorar nada. Y desde nuestra parte, no tenemos compromisos con ustedes como grupo para dar los pasos que tenemos que dar en el futuro. Ustedes no han aceptado nuestro planteamiento, pero nosotros sí que mantenemos el compromiso con la ciudadanía vizcaína, y en adelante trabajaremos esta Norma como debe trabajarse, y la traeremos aquí. Y la pelota sí, la pelota siempre está sobre nuestro tejado. Yo creo que el único tejado es el nuestro, y lo trabajaremos como se debe y lo traeremos. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la toma en consideración o no de la iniciativa. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: ha habido un total de 44 votos emitidos. Han sido 16 votos a favor, 28 votos en contra, no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se ha tomado en consideración la iniciativa.

Y a continuación, debatiremos de forma conjunta los puntos 7º y 8º del Orden del Día.

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0001141](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: La ausencia de prioridad en la política de infraestructuras del derribo del viaducto de la A-8 a su paso por Rekalde.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0001141](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (62A)

Expediente: ([11/B/20/0003520](#))

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0001147](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: La variante de Rekalde.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0001147](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (64A)

Expediente: ([11/B/20/0003524](#))

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0001141SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Azpiegitura-politikan A-8 autobideko Errekaldeko zubibidea erasteak lehentasunik ez izatea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001141SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (62A)

Espedientea: ([11/B/20/0003520](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0001147SE](#))

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: Errekaldeko saihebidia

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001147SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (64A)

Espedientea: ([11/B/20/0003524](#))

Y para comenzar con el debate, en primer lugar, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

Y en este punto, quiero dar la bienvenida a los y las compañeras de la Plataforma Autopista Kanpora que están siguiendo esta Sesión Plenaria y que están hoy entre nosotros/as.

Dicho esto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak. Eskerrik asko, Mahaiburu andrea, buenos días de nuevo.

Goiz honetan bizkaitarrei zergak igoten aritu gara eta orain ea lortzen dogun benetan herritarrei bueltetea euren boltsikoetatik kendu deutsegun diru hori gehi egoera ekonomikoagaitik gaur arte bildu doguzan 151 milioi euroak. Eta diru hori itzultzeko ez dago ezer Errekaldeko bizilagunak baino hobeagorik. Izan be, Batzar Areto honetan berba egin dogun moduan, Aldundiak behin eta barriro ahaztu dauz bizilagun honeek, eta saihasbide horrek kalte izugarria eragin deutse eta zubi horrek be kalte handia eragin deutse.

Orain dala bi hilebete, orain dala bi Osoko Batzar, EH Bilduren proposamen bat egon zan Osoko Batzar honetan. Errekaldeko saihasbideari buruzko ahozko eske baten aurrean, danok harritu ginduzan Pradales diputadu jaunak erantzun euskunean Aldundiak ez eukala ez baliabiderik, ez asmorik, ez gogorik Errekaldeko zubibidea kentzeko.

Ondoren, EH Bilduren eta Alderdi Popularraren bi itaun gehitu ziran, eta kezka horren aurrean zer gertatzen ari zan galdetu genduan. Eta, ustekabean, Pradales diputadu jaunak gaiaz aldatu egin eban eta harenbaten hauteskundeak hur egozalako, edo zeozelako ohartarazpenen bat izan ebalako, lanean ari zirala esan eban. Hau da, hilebete batetik bestera, ezer ez egitetik eta egiteko inongo asmorik ez izatetik lanean ari dirala esatera, Aldundiko baliabideakaz, eta epe luzerako kronograma bat egin eban eta esan eban “egin behar da, egin behar da, egin behar da...”. Gogoratuko dozue zuok guztiok gauza asko egin behar ei zirala, baina ez egoan inongo proposamen zehatzik. Eta hori zan guk gura genduana, eta itaun honetan eskatzen doguna, hau da, zehaztasuna.

Izan be, Osoko Batzar Areto honetan diputadu jaunak izan eban berbaldi haretatik inork ez eban urten konbentziduta. Egia esateko, guk ez genduan urten konbentziduta, hemen egon ziran auzotarrek ez eben urten konbentziduta, eta nire ustez ez eban inork sinistu Pradales jaunak inoana azken agerraldian. Izan be, egia esateko, ez eukan zentzun handirik hilebete batetik bestera erispidez aldatzeak, inongo errazoi argirik emon barik.

Eta zergaitik ez dau inork sinisten? Bada, Aldundi honen hemerrotekeari errepasso txiki bat emotea nahikoa dalako ikusteko zergaitik bizkaitarrek orokorrean ezin deusagun sinistu gobernu-taldeari. 1999ko zezeilan, urte batzuetan aldarrikatzen egon ondoren, Bilboko Udalak Errekaldeko zubibidea kentzeko eskatzen ebana onartu eban Bizkaiko Aldundiak. Eta halantxe inoan, eta gaur egungo ia 114 milioi euroko aurrekontua egin eban. Izan be, une haretan autortu egiten eban ez egoala gaitasun ekonomikorik, baina onartu egiten eban egin egingo zala, Aldundia horretan lanean hasiko zala.

2016ko martiko Garapen Ekonomikoko Batzordean (geratu zaiteze data horregaz, gero errepetiduko deusuet-eta) esan zan Errekaldeko saihasbidea ingurumen-bideragarritasunaren fasean egoala, eta 3,75 milioi euroko gastua izango ebala alde z aurreko izapidetzean. Geratu zaiteze data horregaz, gero errepetiduko deusuet-eta: 2016ko martiaren 14a. Aldez aurreko ingurumen-bideragarritasunaren fase baten gagoz, 3,75 milioiko gastuagaz, eta, gero, aurreko fase horretarako aurreikusitako epea 10 hilebetekoa izango zala. Hortxe gagoz.

2017ko bagilean, Pradales jaunak iragarri eban bere egingo ebala auzotarrek, saihasbideko bizilagunek gehien babesten eben aukerea, hau da, saihasbide bat egitea eta Errekaldeko zubibidea kentzea. Pradales jaunak 2017ko bagileko agerraldi haretan esan eban.

2018ko zemendian, alderdi honen, Alderdi Popularraren itaun bati erantzunez, Bilboko HAPOri itxaron behar geuntsala esan zan, eta hasi egin behar zala, eta epe batzuk emon ziran. Eta, tira, hor zera esan zan: “Bilboko HAPO onartu ondoren epe batzuk emongo doguz”, eta esan eban 28 hilebete zirala proiektuak idazteko lizitazinoa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko; 10 hilebete obren eraikuntzea kudeatzeko, eta 48 hilebete obrak egiteko, eta beste 8 hilebete bigarren faserako.

Eta hemen, daborduko Kontrolerako Osoko Batzarretara heltzen gara, lehen adierazo dodan moduan, eta batzar horreetan ez ebalu ezer egingo esan zan. Hurrengo Osokoan, jakina, hementxe Pradales jaunak epe batzuk emon euskuzan, 2018ko zemendian, barriro dinot.

Eta lehengo egunean, Kontrolerako Osokoan, Pradalesek inoazan “hay que” horreetan... Konturatu zaitezte, 2018ko zemendian lizitazinarako 28 hilebete eta eraikuntzea kudeatzeko 10 hilebete egozala inoan Pradales jaunak, eta aurreko Osoko Batzarrean esan eban 38 hilebete horreek (2018ko zemendian aitatu ebazanak), orain 48 hilebete izatera pasau dirala eregite-proiektuaren lizitazinarako. Lehenik eta behin, aurretik 6 hilebete egon behar ei dira ingurumenari buruzko informazino geoteknikoa egiten. Eta, esan deusuedan moduan, hori 2016ko martian egin zan, gogoratzeko esan deusuedan data horretan. 2016ko martian esan eban informazino geoteknikoa eta ingurumenari buruzkoa egiten ari zirala eta 3,75 milioi euroko kostua izango ebalu.

Pradales jaunak, joan dan astegoienean, joan dan hilebetean, esan euskun orain barruko baliabideakaz egiten ari zirala. Baina, eginda dago-eta! 2016ko martian egin zan-eta! Non gagoz, jaun-androk?

2018ko zemendian, Pradales jaunak esan eban obrak egiteko lehenengo faseak 48 hilebete iraungo ebalu, eta 8 hilebete bigarren faseak, guztira 56 hilebete. Harainegun, orain dala Osoko Batzar baten, diputadu jaunak inoskun obra horreek 48 hilebete izan beharrean 68 dirala. Halanda ze, 2018ko zemendian hasieran 94 hilebetekoa bazan, orain, bat-batean, orain dala bi Osoko Batzar, aurreko Osokoan, 116 hilebete izatera pasau da. 22 hilebete gehiago, 2 urte gehiago obratan.

Nori sinisten deusagu? Orduko sasoiari esan zenduan hori sinistuko dogu, orduan esan zenduana? Sinistu leiteken gauza bakarria, auzotarrek gura dabena eta posiblea izan leiteken bakarria eta behar doguna zera da: aurrekontua zehaztu daitela. Horregaitik gaur dakargun mozino honetan kronograma zehatu bat eskatzen dogu, hasierea hain datatatik hain datatara joango dala eta baliabide ekonomiko bat emongo jakola. Hain datatan obrea hasiko dala, eta baliabide ekonomiko bat emongo jakola. Eta urte anitzeko aurrekontua onartu daitela, eta bertan jaso daitela 2024an honenbeste gastauko dozula, 2025ean honenbeste, 2026an honenbeste, eta 2027an honenbeste. Diruagaz, horregaz baino ezin jatzue sinistu.

1999tik hona behin eta barriro esaten deusezue gauzak herritarrei eta gero ez dozue beteten. Halanda ze, ezinbestekoa da zuek dirua emotea, horixe da-eta zuek alkarregaz lotzeko eta kronograma bat egiteko modu bakarria (gure mozinoak proponiduten dauen moduan) eta bertan urte bakoitzean jarriko dozuen zenbateko ekonomikoa zehaztu daizuela. Ez deust balio datorren urtetik aurrera aurrekontuan dirua jarriko dogula dinoan autormen orokor batek, 1999an, 2018an, 2006an esan zenduen-eta hori. Beti esan dozue eta ez dozue ezer egin.

Nire ustez, gaur behintzat Errekaldeko bizilagunek merezidu dabe, egin dozuen zerga-igoereagaz gain, Aldundiaren konpromiso ekonomiko bategaz urten dagiela, eta Errekaldeko saihebidia gauzatuko dan konpromisoagaz.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecochea. A continuación, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, y especialmente a los y las vecinas que han venido desde Rekalde. Ane, Marta y Padi, bienvenidas una vez más a esta Cámara.

Hace 20 días, el Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales Gil, en la sesión plenaria de control, nos indicó la fecha de la puesta en marcha del proyecto de ejecución de la variante de Rekalde y del derribo del viaducto que atraviesa el barrio.

Nos indicó que durante los primeros seis meses se llevarán a cabo diferentes trabajos en el propio departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y que a partir de ahí habrá que empezar con la licitación de las diferentes fases del proyecto.

En total 116 meses, casi 10 años. Los primeros 48 meses para llevar a cabo las labores del área técnica y la fase de documentación, principalmente para la elaboración del proyecto constructivo de la variante de Rekalde. Y los siguientes 68 meses para la ejecución de las obras, construcción de la variante y posterior derribo del viaducto.

EH Bildu solicitó al Diputado que el proyecto no se paralizara entre fases, que todos estos trámites se realicen de forma continuada, evitando interrupciones y retrasos. Y la respuesta del diputado fue: trabajo continuo y permanente durante 116 meses.

Por lo tanto, EH Bildu presentó esta moción derivada de la interpelación, y que decía: “Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que en los presupuestos de 2023 se incluya una partida económica específica para la licitación y redacción del proyecto de construcción de la Variante de Rekalde”.

2023ko aurrekontuetan partida ekonomiko espezifikoa bat jaso daitela, Errekaldeko saihebidetaren eragite-proiektua lizitatu eta idazteko. Aurrerapausu bat dala uste dogu, kuantifikatu leitekeen aurrekontu-zuzkidura dala. Horixe zan EH Bilduren proposamena, hasierako pausua ezartea, proiektu honentzat 116 hilebete luzeen hasierapuntua izan daitela, barriri dinot.

Gobernu-taldea osotzen dabean alderdiek ildo bereko zuzenketea aurkeztu deuskue. Izan be, negoziatu eta adostu egin dogu eta kontzeptu batzuk ia-ia esan geinke berba bardinakaz errepitiduten dauzala, eta horrelan dino: “Behin Bizkaiko Foru Aldundiak jarraitu beharreko ibilbide-orria zehazten dauenean eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak amaitzen dauzanean gaur egun egiten dabiltzan aurretiazko azterlanak amaitzen dauzanean (eta orain dator garrantzitsuenak), 2023ko ekitaldian Errekaldeko saihebidetaren eragite-proiektuaren lizitazioan eta idazketan aurrera egiteko behar dan urte anitzeko zuzkidura ekonomikoa txertatu daitela”.

Eta horregaitik EH Bilduk uste dau gaur jauzi kualitatibo bat emoten dogula, Andrade jaunak ikusten ez dauen arren; izan be, 47 urteren ondoren, gaur atzerako kontua abiaraziko dogu, eta gaurtik, bagilaren 22tik zenbatzen hasteko botoiari sakatuko deusagu. Egia da Errekalde auzoarentzat atzerako kontua dana, harenbaten luzea, luze-

luzea izango dana, esan dot, ia 10 urtekoa, baina etenik eukiko ez dauen atzerako kontua dala uste dogu. Daborduko ez dago atxakiarik, eta gure taldeak, eta gure ustez Errekaldeko bizilagunek be, eta Autopista Kanpora Plataformeak berak be (hasieran esan dodan moduan, gaur be gure artean dagoana), gogoan hartuko dogu eta akordio honen jarraipen espezifikoa egingo dogu.

Eta barriro dinot, 116 hilebeteko lan etenbakoa eta iraunkorra. Ni nahiko antolatua naz, eta atzo, erdibidekoaren akordioa sinatu genduanean eskuko telefonora joan nintzan eta Googleko egutegian sartu neban. 3 data sartu dodaz, 2026ko bagilaren 22an (48 hilebete) alarreak joko deust; eregite-proiektua entregetako datea da. Alarrea astebete lehenago ipini dot. 2031ko bagilaren 22an Errekaldeko saihebiderearen inaugurazinoa, obratik 9 urteko tarteagaz. 2032ko bagilaren 22an, zubibidea erasteren amaiera.

Hiru data horreek nire egutegian sartuta dagoz, gaur egun agendak ez doaz paper formatuan. Halanda ze, dana da errazagoa eta epe luzera proiektu leiteke. Espero dot, eta nire taldean espero dogu data horreek guztiak bete daitezala. Izan be, barriro dinot, gaur Errekaldeko saihebiderea eregiteko eta zubibidea erasteke lehenengo pausua emongo da, benetako lehenengo pausua, eta hori ezin izango zan, besteak beste, gure taldeak, EH Bilduk erakundeetan egin dauen lana egin ez balitz, eta Errekaldeko gizarte-mobimentua konstantea izan ez balitz.

Errekaldeko auzo osoa zoriondu gura dogu, orokorrean, eta modu berezian Autopista Kanpora Plataformea, izan dauen adorea gaitik eta iraunkortasunagaitik, eta espero daigun urte honeetan guztietan bardin jarraitu dagiela. Errekaldeko gizarte-eragileen lan hori barik eta egindako mobilizazinoa barik ez zan horrelangorik lortuko.

Apirileko Kontrolerako Osoko Batzarrean, Bilboko HAPO onartu ondoren, Imanol Pradales Azpiegituretako diputaduak EH Bilduren galderei erantzun eutsen esanez Errekaldeko zubibidea erasteak itxaron egin beharko ebala, aurrekontuan beste konpromiso batzuk egozalako. Maiatzeko Osoko Batzarrean barriro eskatu geuntsan, eta EH Bilduk mozino bana erregistrau eban, bai Bilboko Udalean, bai hemen, Bizkaiko Batzar Nagusietan, eta obra hori aurrekontuz horniduteko eskatu eban, horrelan erakundeek orain dala lau hamarkadatik Errekalde auzoagaz daben zor historikoa kitatu daiten.

Eta horrelan, hanka bat kalean dogula, bestea erakundeetan, uste dogu danon artean lortu dogula azkenean aurrekontu bat esleitzea obra hori hasi daiten. Felicidades, Rekalde.

Ha sido fruto del trabajo institucional de EH Bildu a través de las mociones presentadas en las Juntas Generales y en el Ayuntamiento de Bilbao. Hemos conseguido algo muy difícil, que la Diputación cambie su opinión, que se mueva, y eso ha sido gracias al trabajo institucional y a la movilización ciudadana.

Y si esa ha sido hasta ahora nuestra hoja de ruta y parece que ha funcionado, les adelanto que lo seguirá siendo en adelante.

Ni siquiera un minuto para relajarse, porque el derribo del viaducto debe ser irreversible desde hoy mismo.

Hoy es un gran día para Bizkaia, para Bilbao y, sobre todo, para Rekalde, porque vamos a emprender un recorrido que nos permitirá conseguir un Rekalde y un Bilbao más saludables, más seguros y mejores, y eso no tiene precio en términos de rentabilidad social.

Estamos hablando de una gran inversión, es cierto, pero las mejoras que nos trae compensan con creces el coste económico, siempre compensa.

Y con esto finalizo; porque Bizkaia, Bilbao y Rekalde se lo merecen, porque saldamos una deuda histórica con este barrio.

Hoy damos un pequeño paso, pero al mismo tiempo, será un gran paso y muy importante. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Méndez Urigoitia. A continuación el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Hasi orduko, jakina, Errekaldeko Plataformako auzokideen bertaratzea eskertu gura dot eta ondoetorria emoten deutset.

Gaur, Errekaldeko zubibidea erasteaz, Errekaldeko saihesbide barria eregiteaz eta, jakina, Bizkaiko Foru Aldundiak bi jarduketetan daukan egitekoaz eztabaidatu dogu. Gai horrek ibilbide luzea euki dau, bai Batzar Nagusietan, bai kaleetan, jakina, batez be Bilboko herritarren artean.

Horren haritik, egokia dala uste dogu gure poza adierazotea gai honetan lortu dogun akordio zabalagaitik, eta hori sano garrantzitsua da sozialistentzat, beti defendidu dogu-eta Errekaldeko zubibidea erastea lehentasunezko jarduketea izan behar zala Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. Horregaitik, sozialistok beharren aritu gara erantzukizun publiko edo instituzionalak izan doguzan lekuetan. Ez bakarrik atriletako edo hedabideetako berbakaz, ezpada gure beharragaz eta bultzadeagaz erantzukizun publikoak edo barrukoak izan doguzan lekuetan, esan dodan moduan, horretara bideratutako ekintzakaz beti be.

Horrelan geratu zan agirian Errepideen Lurralde Plan Sektorialaren gidalerro eta erispideei buruzko azken akordioan. Akordio hori Alderdi Sozialistearen eta Euzko Abertzaleak taldearen aldeko botoakaz atera zan, eta modu argian Errekaldeko saihesbidea eregitearen aldeko apustua egin zan, Lurralderako lehentasunezko jarduketatzat hartuta.

Denpora horretan guztian jakinarazo dogu egokia eta zentzunezkoa iruditzen jakula Bilboko Uri Antolamenduko Plan Orokorra onartu arte itxarotea jarduketa horri ekiteko. Halan jakinarazo dogu beste talde politiko batzukaz izan doguzan eztabaidetan, eta baita gai honen inguruan izan dogun ikuspegia auzokoakaz trukau dogunean.

Eta guretzat hori ez zan izan inoiz jarduketa hori moteltzeko edo luzatzeko ahalegina, inoiz be ez; izan be, guretzat, esan dogun moduan, gai hori lehentasunezkoa izan da beti Bizkaiko azpiegitura-politikan, eta marra gorri bat guretzat. Horrelan proponiduten genduan, esku-hartze hori aurrera erodateko aukerarik zentzunezkoena iruditzen jakulako.

Horrelan proponiduten genduan. Izan be, horrezaz gainera, Errekaldeko zubibidea erastea azterlanak HAPO hori onartu ondoren hasteko

konpromisoa hartu genduan Foru Gobernu babesten dogun taldeok, eta halan helduarazo geuntsen Errekaldeko bizilagunei. Konpromiso horretan sinisten gendualako esaten genduan, eta horretarako partida bat egoalako. Eta, Batzar Nagusi honeetan bertan azken Kontrolerako Osoko Batzarrean azaldu zan moduan, denporeak erakutsi dau esaten genduana, jakitera emoten genduana egia eta zintzoa zala, ez zala inondik eta inora eskuhartze hori luzatzeko ahalegin bat. Hau da, behin Bilboko HAPO onartuta, azterlanak abian dira, daborduko garatzen ari dira, defendidu genduan moduan.

Era berean, aurreko Osoko Batzarrean jakin ahal izan genduan bi lanak egiteko epeak edo denporak zeintzuk izango ziran, hau da, zubibidea erasteke eta saihezbide barria eregiteko epeak, daborduko zehaztu diranak aurreko agerraldietan; halanda ze, ez dot horretan sakonduko. Baina, tira, argi geratu jaku guztioi etenbako lana eskatzen dauen bide luzea dana, jakina.

Eta horregaitik guztiagaitik, ibilbide hori guztia kontuan hartuta, eta eskura dogun informazioa kontuan hartuta, urrats egokia eta beharrezkoa dala erexten deusagu Batzar Nagusiek eskatzea hurrengo aurrekontuetan, 2023ko aurrekontuetan, urte anitzeko partida bat bideratu daitela obra horreekaz aurrera egiteko, lizitazioagaz eta eregite-proiektuaren idazketeagaz aurrera egiteko, une honetan egiten ari diran azterlanak amaitu ondoren.

Eta guztiz bidezkoa dala erexten deusagu bizkaitar guztiek egin dagiela ahalegin ekonomiko hori, Errekaldeko bizilagunek urteak daroen sakrifizioari amaierara emoteko; izan be, euren kaleetan zubibide bat kokatu behar izan eben milaka eta milaka bizkaitar dabilzan autobide baterako. Zubibideak auzoan izan dauen eragin estetiko edo bisualaz aparte, hamarkadak daroaz segurtasun-, osasun-, zarata- eta kutsadura-arazoak eragiten auzokideakan, eta arazo horreek ez ebezan inoiz jasan behar izan.

Uste dot horretarako lehenengo urratsa dala, eta espero dogu eta gurako geunke hemendik aurrera Errekaldeko bizilagunek ikusi dagiela euren erreklamazio justuen mailan gagozala. Behargin harroen auzo honek merezidu dau, bilbotar eta bizkaitar guztientzat hainbat hamarkadatan burruka-, komunitate- eta aldarrikapen-eredu izan diralako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. A continuación, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tira, lehenengo eta behin, Errekaldeko auzotarrak eta Autopista Kanpora Plataformako kideak agurtu gura dodaz.

Dakigunez, Errekaldeko saihezbidea eregiteak eta egungo zubibidea erasteak ahalegin tekniko eta administratibo handia eskatzen dabe, baita aurrekontuetan ahalegin handia egitea be. Sano proiektu gatxa da, proiektu luzea eta handia, funtzionaltasunaren ikuspegitik eragin handia daukana, eta baita ingurumen-eraginen ikuspegitik be; izan be, A-8 autobidearen hegoaldeko urtenbideaz ari gara, eta egunero bertatik milaka ibilgailu igaroten dira.

Horixe gogorarazo euskun Azpiegituretako diputaduak aurreko Osoko Batzarrean, taldeen itaunei erantzunez, eta horrelango jarduketa baten ze urrats

emon behar diran deskribidu eban, eta gaur egun Errekaldeko saihebiderearen eraikuntzan aurrera egiteko eta, ondoren, zubibidea erasteko egiten ari dana azaldu euskun.

Aurreko Osoko Batzarreko bi itaun horreetatik, bi mozino honeek daukaguz mahai gainean. Alde batetik, Euskal Herria Bildu taldearen mozinoa. Bertan, xedapen-zatian proponiduten dau 2023ko aurrekontuetan partida ekonomiko espezifiko bat jaso daitela, eregite-proiektua lizitatu eta idazteko. Eta, beste alde batetik, Alderdi Popularraren mozinoan hilebeteko epearen barruan datak zehaztuko dituan kronograma bat aurkeztu daitela eskatzen da, eta behar diran aurrekontu-zuzkidurak sartu daitezala.

Tira, gure taldetik, Sozialistak taldeagaz batera, testu beragaz zuzendu doguz bi mozinoak. Testu horrek, bere justifikazio-zatian Aldundia egiten ari dan ibilbide-orri hori jasoten dau, eta diputaduak joan dan hilean zehaztu eban Errekaldeko saihebiderea egia bihurtzeko eta zubibidea erasteko ze urrats emon behar diran, zenbat hilebeteko iraupena izango eban. Ibilbide-orri horretan jasoten dira, batetik, eregite-proiektua egiteko urratsak (48 hilebete) eta, bestetik, saihebiderea egiteko eta, ondoren, zubibidea erasteko urratsak (68 hilebete), hau da, 116 hilebeteko lan etenbakoa eta iraunkorra, eta Aldundia daborduko beharren ari da horretan.

Eta hori guztia kontuan hartuta, xedapen-zatian eskatzen dogu hurrengo ekitaldian sartzea eregite-proiektuaren lizitazioan eta idazketan aurrera egiteko beharrezkoa dan urte anitzeko zuzkidura ekonomikoa, gaur egun gauzatzen ari diran aurretiazko azterlanak amaitu ondoren. Hau da, zuzenketa bat bi mozinoei, uste gendualako beharrezkoa zala egiten ari garan lana mahai gainean jartea eta Aldundia daborduko egiten ari dan ibilbide-orria indartzea eta balioestea. Zuzenketa hori aurkeztu genduan konpromiso horretan aurrera egiten jarraitzeko helburuagaz, Errepideen Lurralde Plan Sektoriala egiteko gidalerro eta erispide orokorren dokumentuan jasota datorren konpromisoa.

Azkenean, Euskal Herria Bildu taldeagaz erdibidekoa adostea lortu dogu, 2023ko data zehaztuz, eurek mozinoan adierazotako moduan, eta akordio horretan Aldundian egiten ari dan lana jasota.

Eta eskerrak emoten deusadaz Bilduri kasu honetan, izan dauen jarrereagaitik eta adosteko erakutsi dauen jarrereagaitik, nahi-ta domina guztiak berak zintzilikatu dauzan eta, tira, emoten dau Aldundia zuoi esker ari dala lanean, baina edozelan be uste dot garrantzitsua dala zuon jarrera eta adosteko prestasuna, eta eskertzen deusuet, uste dodalako garrantzitsua dala Errekaldeko saihebideari buruz akordioa izatea.

Ez da horrelan izan Andrade jaunagaz. Andrade jauna, zure mozinoaren aurka bozkatuko dogu, mozinoan eskatzen dozuena diputaduak aurreko Osoko Batzarrean daborduko zehaztu eutsuelako, ibilbide-orri bat, hilebeteak eta egin beharreko urratsak zehaztuta. Halanda ze, ez dogu ulertzen zure mozinoaren helburua. Ez dogu ulertzen diputaduari joan dan hilean entzun ondoren mozino hau aurkeztea, bertan egiten ari garana eskatzen dozuenean, eta benetan uste dot ez datorrela bat errealidadeagaz gaur esan dozuna. Edozelan be, eskua luzatu deusugu zugaz be akordio bat lortu ahal izateko. Proposamen bat helduarazoteko eskatu geuntsun, behin gure zuzenketea aurkeztuta, eta jarrerak hurreratu ahal izateko, Euskal Herria Bildu taldeagaz egin genduan moduan, baina zure aldetik ez da borondaterik egon.

Andrade jauna, borondateak beti aurkitzen dau modua, eta kasu honetan helburua, zure helburua beste bat zan. Eta gustauko jakun zuk be sinatzea, akordio hori sinatzea, urte anitzeko zuzkidura ekonomiko hori jasoten dauen akordioa, zuk be zure mozinoan eskatzen dozuna, eta ez dogu ulertzen zure jarrera. Edozelan be, espero dot akordio honen alde bozkatu daizula, ezipabere, zure taldeak ez dau babestuko beste behin

Errekalde auzorako akordio on bat, aurreko legealdian egin zenduen moduan.

Garrantzitsuena, eta agirikoa dana, aurrera goazala da, gidaleroen dokumentuak adierazoten dauen moduan. Bilboko Uri Antolamenduko Plan Orokorra onartu ondoren, lanak hasi dira. Gaur egun, aurrekariak aztertzen ari gara. Diputaduak argi-argi berba egin eban aurreko Osoko Batzarrean, eta sano argi itxi eban Aldundiak daborduko zelan behar egiten dauen eregite-proiektuaren lizitazio-plegua prestau ahal izateko ezinbestean emon behar diran izapide horreetan. Behar horreek 6 hilebeteko iraupena izango dabe, eta bertan urigintza-, ingurumen- eta geoteknia-informazioa aztertuko da eta aldez aurreko lanak egingo dira, pleguaren ebaluazioan puntu kritikoak eta epeak identifikatu daitezkan.

Gure ustez, gaur lortu dogun akordio honegaz, Aldundia daborduko jarraitzen ari dan jarrera eta ibilbide-orria indartzen dira, eta horregaitik, talde guztiek babestea gustauko litxakigu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez.

El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Guk gaur ez doguz pulpitu honetatik agurtuko Osoko Batzarra ikusten etorri diran Autopista Kanpora Plataformako bizilagunak. Bertan egotea eskertzen dogu, ezin bestelan izan, baina guk, nire ustez jagokon lekuan agurtu zaituegu, hau da, kalean, zuon mobilizazioetan eta aldarrikapenetan laguntzen eta eskatu deuskuzuenen arazo honi konponbidea bilatzeko urratsak emoteko batzarretan zeuokaz jesarrita egon garanean.

Hainbeste espero eta eskatu izan dan Errekalde gaineko autobidea erastearen inguruko eztabaidak, dakizuen moduan, sarritan ekarri dira Batzar Nagusietara, formatu desbardinetan, gainera, Batzordeetan, Osoko Batzarretan proposamen desbardinetan, urteko aurrekontuetan sartzeko ahaleginak proiektu honegaz aurrera egiteko, ia ikasturte politiko guztietan.

Proiektu honetan aurrera egiteko zeozer abiarazotea proponidu dan guztietan (eta azpimarratu egiten dot “guztietan”), Gobernua osotzen daben alderdien horma gaindituezinagaz egin dogu topo. Oposiziotik herritarren proposamenak egiten genduzan guztietan (eta azpimarratu egiten dot “guztietan”), hain modu arriskutsuan eta ez modu osasungarrian gure gainetik eta Errekaldeko bizilagunen gainetik doan azpiegitura ikaragarri horregaz amaitzeko, bozketa guztietan (eta azpimarratu egiten dot “guztietan”) Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistek proposamen horreei uko egin deutsee.

Trimiño jaunak esan dau, eta zuzen errepetidu dau Edesa andreak, bide luzea dala, 116 hilebete zenbatu dira obra hori amaitu arte. Ibilbide horren zati handi bat eginda ahal izango genduan, eta Errekaldeko bizilagunei obra horren amaiera askoz be epe laburragoan eskaintzeko aukerea izango genduan. Gaitzespen horretarako era askoko justifikazioak izan dira, eta irudimen handikoak. Ea dirua zugatzetan hazten dala uste ete genduan, proiektu honetan jarri ezkeru dirua beste leku batetik kendu beharko genduala inoen (gizarte-laguntzetatik, esaterako)... Aurrekontu-partidak murrizteko leku bakarra hori balitz lez.

Horrezaz gainera, euren burua zuritzen eben esanez hondino ez zala obra horri aurre egiteko unea, Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko beste proiektu batzuk ebazalako artatzeko. Ez da horrenbeste azken hori Ganbera honetan bertan entzun genduala, zoritxarrez. Beti egoan atxakiaren bat proposamenak behin eta barriro baztertzeko, ia zirkinik be egin barik.

Zorionez, gizarte zibilak kaleetan manifestazioak egiten jarraitzen eban behin eta barriro, eta ez eban atzera egiten erakundeoi eskatzeko zuzena zana (eta ez eban inork esaten zuzena ez zanik), hau da, urigintzako zentzunbakokeria horri urtenbidea emongo eutsan proiekturen bat gauzatu eitela.

Errekaldeko bizilagunek ez dabe egun bakar baten be amore emon, eta bidezkotzat jotzen dabenaren alde burrukatzen jarraitu dabe, eta jarraitzen dabe. Errekaldeko bizilagunek 45 urte daroez azpiegitura hori jasaten. 45 urteko zaratea, kea eta kutsadurea, eskegita eukien erropea lohitu egiten ebana eta osasunari kalte egiten eutsana. 45 urte autobidetik joiazan ibilgailuetako elementuren bat jausiko ete jaken bildurragaz. 45 urteko bidebakokeria, urte askoko atzerapena Euzko Alderdi Jeltzaleak bete ez dauzan hainbat promesen ondoren.

Gaur, azkenean, eta inoiz amore emon ez daben Errekaldeko bizilagunen ahaleginari esker, esan geinke posible izango dala azkenean bigarren urrats bat emotea, autobidea buruetatik behin betiko urrunduko dauen proiektua zehazteko. Lehenengo urratsa, dakizuezen, Bilboko Udalean emon zan, Uri Antolamenduko Plan Orkor barrian zubibidea erasteko beharra sartu zalako, eta baita Bizkaiko Foru Aldundiari konponbiderako obrak ahalik eta epe laburrenean hasteko eskatzeko proposamena be.

Adierazo dodan moduan, nire aurretik berba egin daben taldeek azaldutakoaren arabera, gaur beste urrats bat emongo da, eta proiektu hau gauzatzeko behar diran diru-partidez horniduko da.

Gaur eztabaidarako aurkeztu diran proposamen zehatzetara barriro joanda, euren planteamentuetan oso antzekoak diran eta funtsean gauza bera eskatzen daben bi ekimen aurkitzen doguz, hurrengo ikasturte politikorako aurrekontu-zuzkidurea, hatan be, proiektuaren konponbidea zehazteko. Biak irakurrita, gure taldeak ez eban zalantzarik zuzentzeko aukera gehien eukazan ekimena aulkien alde honetako taldeak aurkeztutakoa izango zala. Talde Mistoarena askoz be zehatzagoa eta zorrotzagoa zan etorkizunean Gobernua osotzen daben taldeentzat negoziazioari begira. Eta halan izan dala emoten dau, ez dabe-eta inongo akordiorik jakinarazo.

Ez jaku inori pasetan Ganbera honetan aurkeztutako ekimenak bide onera heltzeko aukera bakarra Gobernua osotzen daben taldeek babestea dala, argi eta garbi, eta ekimen horreek onartzeko modu bakarra, era batera edo bestera, eurek jaubetzea da.

Horixe da prezioa, eta onartzen dogu, ez daukagu arazorik. Politikea egitera eta herritarren arazoak konpontzera etorri ginan erakundeetara, ez dominak jartera. Halanda ze, eta ezin bestelan izan, nire taldeak proiektuaren lizitazioan eta idazketan aurrera egiteko aurrekontu-partidea horniduteko konpromisoaren alde bozkatuko dau.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lobato Pascual. Pasaremos al turno de réplicas. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Edesa andrea, nire burua adostasunen aldeko personatza daukat. Aurreko legegaldian, 2011-2015ean hemen egon nintzanean 3 aurrekontu-akordio egin nebazan zuokaz, hirurak onak izan ziran Bizkaiarentzat, eta horregaitik sinatu genduzan. Baina aurrekontu-akordioetara heltzen naz eta zuokaz eta akordioetara heltzea proponiduten deustan edozeineguz heltzen naz akordioetara, nagoan tokian nagoala, uste dodanean akordioak bilatzen ari garan horretarako eta lortu gura dogun helbururako onak dirala, proposamenak aurkezten diranean.

Egia esan, nik neuk ez dot ezer, ezer, ezer aurkitzen zuek EH Bildugaz sinatu dozuen akordioan, eta sentiduten dot hemen esatea, ez dot uste zuok 1999an, 2016an eta 2017an eta 2018an esan zenduenaren aldean desbardina danik dinozuen hori. Ezebez.

Datorren urtean aurrekontu-zuzkidura bat egingo dozuela konprometidu zariela dinozue Errekaldeko saihebiderearen inguruan berba egiteko, zubibidea erasteko. Egingo dozuela dinozue, hurrengo aurrekontuan helduko zariela. Gero, hurrengo aurrekontua helduko da, urria-zemendian, eta zera esango dozue: “bada, egoera ekonomikoak ez deusku ixten, izan be, elektrizidarearen BEZa jatsi egin deuskue eta ez dakit nik zer, ez daukagu dirurik...”, eta hori paper errean geratuko da, zuek behin eta berrero iragarri dozuen guztia lez.

Balio dauen konpromiso bakarra, benetakoa, konpromiso ekonomikoa da, hau da, zuek hona etorri bazinie eta esan izan bazendue, Alderdi Popularrak proponiduten dauen moduan: “berbea emoten dot, 2023an 10 milioi euro jarriko doguzala lehiaketareen lizitazioa hasteko”. Zergaitik dinot 10? 8,9 kostau dalako Lamiakoko ur azpiko proiektuaren lizitazioa, ba 10 jarriko doguz. “Eta berbea emoten dot 2025ean beste 25 milioi egongo dirala saihebidetarako, eta 2026rako beste 25, eta 2027rako beste 25. Eta esan esaten dot eta hemen konpromisoa hartzen dot”. Ez dot esaten aurrekontua heltzen danean sartuko dodala. Sartuko dot, edo ez dot sartuko.

Eta sentiduten dot esatea, eta benetan sentiduten dot EH Bildu sartu izana derrigorrezko onarpen horretan, daukaguzan promesen erretolikearen ondoren. Izan be, foru-diputaduari hemen entzun neutsalako kronograma bat aitatzen, orain dala hilebete. Gainera, kronograma ha ez dator bat Aldundiak berak 2018an adierazo ebanagaz, Aldundi honetan bertan esandakoa baino 24 hilebete luzeagoa da-eta. Inork ez deust justifikau zergaitik orain, lizitazio elektronikoko guztiak egiten doguzan garairik modernoan eta dana modernoagoa dan honetan, epeak 24 hilebete luzatzen diran. Izan be, diputaduak esan eban, horrelan, jarraian, berba egiten ari zan heinean “behar da, behar da, behar da...”, baina ez dau inork errazoiu zergaitik luzatu diran ordurako emon ziran epe horreek. Hondino ez dogu entzun eta batzuk horretan sartu zarie, hori da ulertzen ez dodana, zelan sartzen zarien epeen luzapen baten, obrak, eraikuntzearen hobekuntzak 2018tik hona, ba imajinetan dot... Ez da-eta ulertzen.

Halanda ze, entzun neutsan moduan, lehenengo Pradales jaunari entzun neutsan lehenengo hilean, baina orain dala bi hilebete be entzun neutsan ez eukala inongo asmorik esan ebanean, beste lehentasun batzuk eukazala, 60 milioi euro gastetea gurago ebalu kamioilariei lehenengo eta herritarrei gero bidesariak kobretako arkuak jarten, Gipuzkoan jazo dan moduan. Bada hori Pradalesek esan eban, edo ia 200 milioi euro gastau dauzala bidegorrietan, bidegorrietarako zubietan, etab. Horreek ziran bere lehentasunak.

Ni bat nator zuokaz, eta errespetetan dot lehentasun batzuk eukitea

zuok, gobernuan zagoze-eta eta eskubidea daukazue horretarako, eta oso ondo deritxat, baina Pradales jaunak hementxe esan eban “lehenetasun honeek daukadaz: Lamiakoko itsasadarpekoa, kamioientzako arkuak, bidegorriak”. Eta Errekaldeko saihebidetarako ez eukan dirurik. Horixe esan eban orain dala bi hilebete, eta hilebete batetik bestera, bat-batean, dirua daukat eta egin behar dot... Ez eban esan dirua daukanik. Esan ebana zan, hori bai, “proiektu bat daukat eta hori guztia egingo dot, eta abar”.

Ze alde dago? Eta, izan be, ez dot ulertzen hilebete batetik bestera dagoan aldea, ze aldaketa dagoan, eta eskatzen deusugunean, tira, ea kronograma bat dozun, ba esan eizu, jarri eizu dirua, jarri eizuz 10.000.000 urte baten, 24.000.000 beste baten, ipini eidazu dirua. Hori da Alderdi Popularrak eskatzen deusuna, hori baizen erraza.

Kronograma bat egin bazeunst, guk planteetan geuntsun moduan... Baina handikeriaz 2023an dirua jarriko dogula esatea..., ba gu ez gara horretan sartuko. Eta ni adostasunen aldekoa naz, eta asko gustetan jat negoziatzea eta asko gustetan jat berbatzea, baina ezinezkoa izan da, nik konpromisoa gura dot-eta.

Gaur, arrastiko 19:00etan Zorrotzako auzotarrek manifestazinoa egingo dabe, zuen eta gobernu zentralaren artean akordio bat be egon zalako Zorrotzako trenbide-pasagunea kentzeko, eta gaur auzokoez manifestazinoa egingo dabe. Izan be, idatzizko konpromiso hori (sano polito egiten dozuena sinatzen, eta teleberrietan urtetzen dozue, eta egunkarrietan...) ez da beteten, eta gaur Zorrotzako auzotarrak protestetan aterako dira, sinatu zenduen akordio hori ez dalako beteten ari.

Gaur daukazuen akordio hori bardina da, eta urtebete barru, edo 6 hilebete barru, apuntau egingo dogu, Pradales jauna, ikusiko dogu urte bukaeran txosten hori egin dan, aurretiazko azterlana, eta ea saihebidetaren proiektu barriaren lizitazinoa atera dan. Apuntau egingo dogu: 6 hilebete barru. Hainbeste denpora pasau ondoren proiektuak urten behar dau, ikusiko dogu beteten dan. Eta ezpabere, Errekaldeko bizilagunak, hemen dagozanak, ba barriro be manifestau beharko dira, gaur arrastian Zorrotzakoak aterako diran moduan gauzak ez doazalako aurrera, ahoz sinatu arren edozein konpromiso gorabehera horregaz batera ez badago dirurik, eta horixe da behar dana gauzak aurrera eroateko.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Andrade jauna, dirua, dirua. Zuk mozino bat aurkeztu dozu. Non dago dirua zure mozinoan? Gero hori bozkatu egin behar da, e?

Irakurri zeinkean. 0 euro. Zure mozinoan aitamen ekonomiko bakar bat be ez dozu egin. Ez eiguzu besteoi eskatu zer egin behar dogun zeuk ez dozunean egiten. Izan be, zure mozinoa hobea izan balitz, beharbada zurearen alde bozkatuko genduan eta ez gurearen alde. Baina zuk ez dozu eskatu. Ez zaitetz etorri orain diskurso batez, jazo dan guztiaren ondoren.

Edesa andrea, argitzearren. Esan dozu EH Bildu domina guztiak jartera datorrela. Ez, domina guztiak ez, eta uste dot esan dodala. EH Bilduren lan instituzionala balioan jarten etorri naz, eta kakotx artean, kakotx artean ez, ezpada koma artean, esan dot “beste batzuen artean”, “beste batzuen artean”. Laburbildu gura badogu, latinez uste dot esaldi sano deskriptibo bat dagoala eta honakoa da: “*non solum sed etiam*”. Ba honako hau bardina izango zan: “*ez bakarrik, ezpada be bai*”. Baina egin doguna uste dot balioan jarri behar dogula.

Y ahora hagamos un poco de historia. Aquí se ha hablado mucho acerca del barrio de Rekalde, pero muchas veces se nos olvida fácilmente, muy fácilmente, de dónde venimos, y creemos que eso es fundamental para saber a dónde vamos. La década de los 60, Rekalde. Se proyectó el viaducto de la autopista que atraviesa Rekalde hace más de 50 años. El trazado original, por casualidad, era algo parecido a la Supersur actual. Pero la alcaldesa franquista Pilar Kareaga vio nacer la primera asociación de familias del estado en 1964 en Rekalde y decidió castigar el barrio. Y ¿cómo lo hizo? Poniendo una autopista por la mitad del barrio.

Esta autopista se construyó en 1975, y durante 47 años, tal y como hemos dicho, ha generado en Rekalde problemas de muchos tipos. Tal vez, quizás la más conocida sea la que creo que ocurrió en 1999, porque un camión quedó cruzado sobre la mediana y cayó un trozo de barandilla a la zona de juegos infantiles de la plaza. Y, además, colapsó la ciudad generando largas retenciones de 6 horas, etc.

Sin embargo, en Rekalde han visto volar ruedas, bobinas y todo tipo de materiales arrojados desde vehículos y camiones.

Rekalde no ha querido esta autopista nunca, sino todo lo contrario. En aquella época se hicieron numerosas movilizaciones, la violencia policial fue extrema. Todavía siguen existiendo y se guardan las imágenes donde los grises entraban a Rekalde en sus motos disparando.

Finalmente, el barrio de Rekalde consiguió la dimisión de la alcaldesa fascista, pero cuando llegó la democracia es cierto que las instituciones se olvidaron de Rekalde, y el viaducto sigue firme durante 47 años.

Nik ez nebazan egoera horreek bizi; umea nintzan garai haretan, baina 90eko hamarkadearen amaieran eta 2000ko hamarkadearen hasieran Kukutzagaz Errekalde errebeldearen esperientzia bizi izan genduanok, horrek ekarri eban eztanda sozial eta kulturalagaz, historia hau guztia bertatik bertara ezagutu geinke, eta beti, beti, zor txiki edo handi bat izango dogu Errekaldegaz, zor personala beharbada.

Eta gaur, nire ustez, niri eta garai haretako mila gazteri emon euskun guzti horretatik apur bat itzuli deikiegu Errekaldari eta aurreko garai baten gizarte-eragile garrantzitsuak ziranei be (Errekaldeberriko Familien Elkarte, Errekaldeberriko Komitea, Auzoko Batzordeen Koordinakundea, esaterako, gaur egun Auzo elkarten Federazioa edo Autopista Kanpora Plataformea bihurtu diranak). Gaur Autopista Kanpora lemeagaz daroan txapeak inoiz baino zentzun gehiago daukala uste dot.

Baina jarraitu daigun Errekaldegaz eta bere historiagaz, bertako jenteagaz eta ohiturakaz. Errekalde inguruko mendiak aitatuz, 3 metroko luzerea dauka, ule berdez estalduta dago, 25 urte baino gehiagoz izan da Errekaldeko irudirik festazaleena, pandemiak eragindako murrizketakaitik 2 urtez kalera urten ezinda egon ondoren. Eta etzi, bariku honetan, biribilketa alaian itzuliko da auzoko jaigunera. Errekatartalo dot berbabide, eta ez daukagu zalantzarik Errekaldeko jaietako erreferente horren begiradeak (begi bakarreak eta hortz handidun irribarrea daukana) orain arte

ezagutu ez dauen poztasun eta alaitasun puntu bat izango dauela, badakigulako Errekatartalo be erne egongo dana, urtez urte, jaietz jai, zubibidea auzoaren historia izan daiten.

Amaituko dot. Izan be, ez daukagu zalantzarik hurrengo hamarkadako auzoko albisterik onenetako bat izango dana. Errekaldeko zubibidea historia da. Gaurtik hasita bihurtu daigun historia hori errealdade.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Méndez Urigoitia. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Honako minutuak erabili gura izan dodaz sortzen joan diran kontu batzuk erantzuteko.

Talde Popularreko ordezkariari, bozeroaleari adierazo gurako neuskio harritu egin gaituala esateak hemen ez dala jarri proposamen zehatzik mahai gainean; izan be, daborduko azaldu jatzue zehaztu dirala epeak, esku-hartze horreek dakarrezan denporak, talde politiko desbardinok adostu dogun erdibideko zuzenketea, eta horrek beragaz dakar urte anitzeko aurrekontu-zuzkidura bat ezarteko konpromisoa hartzea 2023ko aurrekontuetan, lizitazioagaz eta gero eregite-proiektuaren idazketeagaz aurrera egin ahal izateko, azterlanak amaitzen diranean. Horrezaz gainera, Bilboko HAPOn bertan daborduko onartu zan Errekaldeko saihebidetarrirako 2. alternatibea hartzea, erabagi hori hartzeko eroan zan parte-hartze prozesu baten bitartez. Halanda ze, daborduko mahai gainean dagoz gai zehatz ugari. Euretako batzuk onartuta dagoz, HAPOrri jagokona, esaterako; beste batzuk azken Osoko Batzarrean azaldu ziranak be, eta beste batzuk orain talde ezbardinak sinatu dogun akordioaren bidez adostu doguzanak.

Beraz, ez dot lar ondo ulertzen zergaitik dinozuen ez dala akordio ona, edo zergaitik dinozuen proposamen zehatzik ez dagoala, nire ustez ez dalako hori errealdadea. Nire ustez, tira, bakotxak, talde bakotxak bere estrategiak daukaz, hauteskundeak egiteko urtebetera gagoz, bakotxak bere ezaugarriak agirian itxi behar dauz, baina, tira, Ganbera honetako talde politikoek egindako akordioaren eta lanaren deskripzioa ez dot uste bidezkoa danik.

Horrezaz gainera, argitu gura genduan, Errekaldeko zubibidea erasteari eta Errekaldeko saihebidetarrirako erregiteari jagokonez, inork ez gaituala sozialistok gure jarreratik mobidu. Ez gaitu inongo talde politikok ezertara behartu behar izan, ez da egon jarrera aldatzera bultzatu gaituanik, ezta gitxiagorik be. Hau da, egon garan erakundeetan, guk beti, beti defendidu izan dogu, beti euki dogu esku-hartze hori Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunezko jarduketatzat. Esan genduan da egokia zala HAPOn onartu arte itzarotea, eta behin onartu ezkerero, ikusi dogun moduan, orain garatzen ari diran azterlanak egitea.

Elkarrekin Bizkaiaren ordezkariari gauza pare bat helduarazo gura neutsazan. Tira, lehenik eta behin, guk, jakina, auzokoaren plataformako kideak hemen agurtzen doguz, bere garaian eureka Bilboko bulegoetan egon ginanean be agurtu genduzan, Bilbon ikusten zaitudanean agurtzen zaitudan moduan, Emilio, eta hemen

ikusten bazaitut barriro agurtzen zaitut, eta kalean ikusten bazaitut, bada, agurtzen zaitut. Ez da bateraezina, ezta hurrik emon be.

Baina sano garrantzitsua dalakoan nago, eta nik, errespetuz, baina desafioa egiten deutsut, esan deidazula nondik atera dozun guk, sozialistok, Errekalde zubibidea erasteko inbersinoa gizarte-laguntzetara inbertiduteagaz edo dirua bideratzeagaz alderatu genduala, horixe esan dozu-eta. Oinarri bakoa eretxi deusat, eta uste dot ez datorrela bat errealdadeagaz. Beraz, uste dot zehatzak izan behar garala era horretako iruzkinakaz.

Baina, tira, barriro dinot, garrantzitsua dan horretan ardatza ipintearren, proposamen zehatzak dagoz, epeak, dirua, azterlanak egiten ari dira. Lana, esan dan moduan, luzea izango da, jarraitua izan behar dau. Guk espero dogu ahalik eta lasterren egitea, baina badakigu ez dana laburra izango; lan luzea izango da, eta oso-osoa eta seguru gagoz akordioak beteko dirana.

Guk ez daukagu inongo asmorik plataformek eta auzo-mobimentuek egin daben burruka duina kapitalizetako. Beste barik. Amaitzeko, zoriondu gura doguz egindako lanagaitik, eta argi itxi, eta zuzena da horrelan esatea, gure ustez gaur egun ona dala Errekaldeko bizilagunentzat, eta aurrerapausu garrantzitsua.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, muchas gracias.

Tira, Lurralde Plan Sektoriala egiteko gidalerroen eta erispide orokorren dokumentuak jasoten dauen testua gogoratzen badogu, hain zuzen be 25. orrialdea, (hemen hainbat aldiz irakurri dan testua da, gainera), horrelan dino testuak: “Errekaldeko saihebiderea lehentasunezko jarduketatzat hartzen da plan posibilistearren barruan, eta beharrezko izapidetzean eten barik aurrera egiteko konpromisoa hartzen da, Bilboko HAPO amaitutakoan”.

Halanda ze, dokumentu horretan onartutakoari jarraituz, Bizkaiko Foru Aldundiak Errekaldeko saihebiderea eta egungo zubibidea erasteko ibilbide-orria zehaztu dau eta lanean ari da horretan. Hori da errealdadea eta hori da Foru Gobernua hartzen ari dan jarrera.

Batzuetan ahaztu egiten jaku, Andrade jauna eta Lobato jauna, proiektu honeek tamainu eta konplejutasun handikoak dirana eta denpora luzea eskaten dabena. Horrezaz gainera, tramiteen ibilbide luzea eskatzen dabe. Martiaren 31n, Bilboko Uri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zan. Bertan, Errekaldeko saihebiderearen 2. aukerea jasota dago, eta Aldundiak, Udalagaz batera, aurretik lan bat egin dau konponbide egokiena zein dan erabagiteko. Hau da, egin beharreko bidea da, eta horrelantxe da era horretako jarduketa guztietan.

Halanda ze, ez da Errekaldeko saihebiderearen gauza eksklusiboa, eta diputaduak gogora ekarri eban aurreko Osoko Batzarrean, eta adibide lez jarri ebazan itsasadarpeko tunelak. Bertan hondinokarren proiektu teknikoaren lanak egiten ari dira. Eta Errontegiren alternatiba baten inguruan berba egiten ari gara lehenengo Lurralde Plan

Sektorialetik, 1999an gitxi gorabehera. 2016an hasi zan alternatibei buruz berba egiten, eta 2018an zehaztu zan, eta orain proiektu teknikoak lantzen ari gara.

Halanda ze, ez da Errekaldeko saihebiderearen eskusiboa dan zeozer, eta ez dagoz lehtasun batzuk eta beste batzuk ez diranak horrenbestean. Ezin dogu esan hori, ez da-eta egia.

Lobato jauna, gu be askotan, hainbatetan egon gara Plataformeagaz, Batzar Nagusietan, Bilbon. Horrezaz gainera, Errekaldera joan gara mahai-inguru batera, eta, gainera, erakundeetan be behar egin dogu, eta pozten naz gaur Errekalderako akordio hau babestuko dogulako.

Andrade jaunak dino ezinezkoa izan dala akordioa. Nik, Andrade jauna, joan dan egunean ekartekotan geratu zinan proposamenari itxaroten jarraitzen dot; lehengo egunean ekarriko zenduala esan zeunstan. Ni hondino horri itxaroten nago. Horrelan ezinezkoa da akordioa, horrelan ezinezkoa da akordioa. Esaten jatzun guztia alde batera ixten dozu, eta horregaz Errekaldeko saihebiderea Aldundiari eraso egiteko arma balitz lez erabili gura dozu. Argi dago hori dana zure helburua, eta gaur ondorio hori atera dot. Hori da proiektu honetan daukazu interesa.

Zifrearena atxakia bat da. Atxakia bat da, hain zuzen be, Méndez jaunak ondo esan dauen moduan, ez dalako zure hasierako mozinoan agertzen. Halanda ze, atxakia lez erabili dozu akordio on baten alde ez egiteko. Eta ostera be esan gura deusut Errekaldeko bizilagunei bizkarra emoten deusezula, aurreko legealdian be egin zenduan moduan, Errekaldeko saihebiderearen lehtasunaz berba egiten eban dokumentu horren alde ez bozkatuta.

Nire ustez, garrantzitsuena zera da, Aldundia daborduko behar egiten ari dala Errekaldeko saihebiderearen aurretiazko azterlan horreetan, Aldundiak aurrera egiten dauela eta dokumentu horretan adostu zan ibilbide-orri horri jarraitzen deusala, lehtasunezko jarduketa lez, plan posibilistearen barruan, eta eten barik behar egiten dauela egin beharreko izapidetzean. Gaur, akordio honegaz, jarrera hori indartzen dogu, konpromiso horretan aurrera egiten jarraitzeko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias.

Tira, azkenetik hasita. Edesa andrea, bide batez, ez dau esan inork, nik neuk behintzat ez dot esan non egon zarien edo non ez zarien egon, hau da, EAJ. Esan dodan bakarria da gu geu non egon garan. Aitatuak sentidu bazarie, zeozergaitik izango zala uste dot, baina tira, pozten naz.

Trimiño jauna, batzar-egunkarietan bilatu geinke, danak dira-eta publikoak. Dana dala, zure esaldi bategaz geratzen naz: “Euskal Sozialistok ez gaitu inork gure jarreratik mobidu”. Egia da, nire lehenengo agerraldian adierazo dot, ez zaitue inork mobidu. Tira, beti ezezko botoa izan da, eta zuen jarreratik mobidu zaitue baten batek, hau da, alkarteek eta auzo-mobimentuek. Eta uste dot geu eta talde politiko guztiak be mobidu gaituela. Izan be, geuri jagoku era honetako alkarteek helduarazoten deuskuenaren barri

emotea, batez be honelango alkartek egiten dabezan proposamenak diranean, eta uste dot inongo talde politikok ez dauela inoiz zalantzan jarri azpiegitura honek gaur egungoa ez dan konponbide bat behar ez dauenik. Zentzun horretan desbardinak izan garala uste dot metodologiari jagokonez, batez be epeei jagokonez, gai hori jorrazteko moduari jagokonez.

Baina, nire lehenengo agerraldian adierazo dodan moduan, nire taldeak erdibideko zuzenketa honen alde bozkatuko dau, ez daukagu zalantzarik jarraitu beharreko bidea dana, adierazo dodan moduan, azpiegitura honen erasteagaz amaitzeko.

Eta Talde Bereziaren proposamenari jagokonez, gure botoa abstentzinoa izango da, eta abstentzino hori justifikau gura dogu; izan be, gure ustez, Gobernua osotzen daben alderdiek eta aulkien alde honetan dagoan taldeak adostutakoa da gaur egun aurrera egitea eragozten deuskun korapiloa askatuko dauen proposamena.

Gure ustez, Alderdi Popularrak arazoaren konponbidean parte hartzeko aukera bat galdu dau, eta ez dogu ulertzen zelan ez dauen parte hartu konponketearen azken testu zuzenduaren idazketan. Hori irakurrita, ez dogu uste Talde Bereziak onartu ezin dauen zeozer danik, benetan. Baina, tira, talde bakotxak ebaluau behar dau non kokatu behar dauen herritarrentzako politika erabilgarria egitea edo hauteskunde-argudioak sortzeko pulpitu honetatik zarata politikoa egitea bereizten dauen marrea, gainerakoakandik aldentuz.

Kasu honetan, eskertzen dogu Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Euskadiko Alderdi Sozialistearen jarrera-aldaketea, proiektuaren definizinoan aurrera egitea ahalbidetuko dauen akordio argi baten islatutako eta Ganbera honek berretsitako urratsak emoteari jagokonez.

Erdibideko zuzenketa honetan, gure ustez, hasierako ekimena gitxi hobetzen daben edo ezer hobetzen ez daben termino batzuk gehitu dabez Gobernua osotzen daben taldeek, baina, tira, gure taldeak begi onez ikusi dau, hori bada Bilboko bizilagunen proposamena aintzat hartu daiten ordaindu beharreko prezioa.

Bihar izan leiteke komunikabideek titular handiakaz ateratea Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistek bilbotar askoren gainetik hegan egiten dauen autobidea kentzeko urratsak emotea onartu dabela, eta euren aldeko tantu politikoa marketea, behin baino gehiagotan adierazo dodan moduan, modu sistematikoan baztertu dabezan arren Ganberara ekarri diran proposamenak. Sikeran titular horretan justizia egingo balitz eta egia hartuko balitz kontuan! Gaur proiektu honetan aurrerapausu hau emon ahal bada bilbotar askoren konpromiso nekaezinagaitik da, hamarkadak daroez-eta konponbide bat eskatzen, eta inoiz ez dabez euren aldarrikapenak alde batera itxi, nahita erakundeen aldetik eragozpenak jaso.

Bizilagun horreei guztiei, mila esker erakustearren politikeak bizirik jarraitzen dauela kaleetan eta bertan burrukau ezkerro herritarren bititzaa hobetzen daben helburuak lortu leitekezala.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lobato Pascual. Y una vez finalizado el debate común, someteremos a votación las dos mociones. En primer lugar, someteremos a votación la moción presentada por el señor Andrade Aurrecoechea. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido 44 votos en total. Han sido 2 votos a favor. Han sido 29 votos en contra y 13 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

Y a continuación, debemos someter a votación la transaccional. Por lo tanto, podemos votar la transaccional.

El resultado es el siguiente: se han emitido 44 votos en total. Han sido 42 votos favorables, no ha habido votos en contra, y 2 abstenciones. Por lo tanto, se ha aprobado la transaccional.

Y avanzando con el Orden del Día, el punto noveno del Orden del Día nos lo leerá el Secretario, pero quiero apuntar un aviso a las personas junteras. Una vez iniciada la votación no se puede entrar al salón de plenos. Por favor, tengan esto todos/as en cuenta. Una vez iniciada la votación, no se puede entrar en esta sala de sesiones.

Muchas gracias. Y el punto noveno del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**

jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0001146](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Despliegue del Estatuto de las Personas Cuidadoras a todo el territorio.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0001146](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (63A)

Expediente: ([11/B/20/0003523](#))

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0001146SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Zaintzailearen Estatutua lurralde osora zabaltzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001146SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (63A)

Espediente: ([11/B/20/0003523](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias y buenos días a todos/as. Estamos finalizando, o sea que ánimo.

Bueno, el día de hoy traemos una propuesta relativa al Estatuto de las Personas Cuidadoras. El Estatuto de Personas Cuidadoras se creó en el año 2016, y tiene como objetivo reforzar algunas medidas de responsabilidad pública y convertir el cuidado en una cuestión de equidad. En línea con esta iniciativa se han comenzado a ofrecer nuevos servicios de apoyo, formación, información, ergonomía y seguridad a las personas cuidadoras, así como refuerzo para los programas de respiro.

En el año 2016 se diseñaron una serie de medidas piloto en un área de Bizkaia y se comenzaron a evaluar las herramientas y recursos al servicio de las personas cuidadoras. La presentación de la evaluación parcial de este proceso se realizó en el año 2018, en febrero, concretamente.

Y en diciembre de ese mismo año se aprobó el Decreto Foral por el que se regula el Estatuto de las personas cuidadoras y la prestación económica por cuidados en el entorno familiar y, finalmente, en octubre de 2019, se aprobó el Decreto Foral que regula la prestación económica vinculada al servicio residencial.

2016an, Jagolearen Estatutua abiarazozan, eta haren lehenengo ebaluazioa bi urte geroago aurkeztuzan. 2020ko urtarrilean, gure taldeak Jagoleen Estatutuan jasotako eskubideen garapenari buruz galdetu eutsan Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputaduari, eta argazki horregaz, datu horreekaz mozino bat ekarri genduan Osoko Batzarrera, haren garapena hobetzeko neurri zehatzak adosteko helburuagaz.

Concretamente realizamos cuatro propuestas en aquel Pleno:

1. Garantizar la disponibilidad de plazas suficientes para poder ofertar estancias temporales de respiro en residencias dependientes de la Diputación Foral.

2. Compatibilidad del derecho al descanso con la prestación económica por cuidados en el entorno familiar.

3. Revisar los requisitos de las personas cuidadoras, flexibilizar los requisitos de parentesco, teniendo en cuenta los nuevos modelos de familia y convivencia.

4. Acordar con los municipios la extensión de la figura de coordinadores/as de caso para evitar duplicidades de servicios.

Zoritzarrez, Osoko Batzar haretan ez zan onartu egindako proposamenetako bakar bat be ez, eta 2021ean barrero galdetu genduan Estatutuan jasotako eskubideen hedapenari buruz.

Elkarrekin Bizkaia taldea be kezkatuta agertu zan jagoleek atsedenerako eskubidea gitxi eskatzen ebelako, eta, bere ekimenetako bati esker, eskubide hori 30 egunera arteko bi alditan zabaltzea onartu zan. Akordio hori datorren urteko ekitaldian jasoko da aurrekontuetan, 2023an.

Y así llegamos al mes de mayo de este año. Han pasado 6 años desde el inicio, en el año 2016, del recorrido del Estatuto de las Personas Cuidadoras, y nos preocupa la situación actual. Así se lo manifestamos al diputado en el anterior Pleno, en la interpelación que hicimos.

El porcentaje de personas cuidadoras que participan en el programa Zaintza Eskola es del 0,5% y el de personas cuidadoras que ejercen su derecho al respiro del 1%.

Maiatzeko Osoko Batzarrean, aurreko Osoko Batzarrean esaten genduan datuak kezkarriak zirala eta zeozerk huts egiten dauela erakusten dabela. Eskaintzen dan formakuntzan jagoleen %0,5ek baino ez dau parte hartzen, eta atsedena hartzeko eskubidea jagoleen %1ek baino ez dau eskatzen. Horregaitik, gelditzeko eta zerbitzu horreek ebaluetako unea zala esan genduan.

Y compartimos lo expresado por el diputado en el anterior Pleno en el

sentido de que las políticas públicas de cuidados no pueden tener fecha de finalización. Es un trabajo continuo en el que debemos definir medidas de evaluación y mejora. Por ello, en la moción que hemos presentado al Pleno de hoy solicitamos a la Diputación Foral que antes de finalizar la legislatura realice una evaluación del desarrollo del Estatuto de las Personas Cuidadoras, ampliando y reforzando los derechos recogidos en el mismo. Asimismo, solicitamos que se detecten los casos en los que además de cuidadoras/es informales existan cuidadoras/es formales y colaborar con Lanbide para posibilitar la participación de este personal en el programa Zaintza Eskola.

Por último, hemos llegado a un acuerdo con el Partido Nacionalista y el Partido Socialista. Nos han pedido más tiempo para evaluar esta iniciativa, esta propuesta, el impacto del acuerdo alcanzado con Elkarrekin Bizkaia, y nos parece razonable. Esperaremos hasta 2023 para conocer los resultados de este diagnóstico, pero no queremos terminar esta legislatura sin conocer la evolución del Estatuto. Por ello, solicitamos que en los dos primeros meses de 2023 el diputado comparezca en la Comisión de Acción Social para aportar la información del desarrollo del Estatuto.

En el cuarto punto planteamos la colaboración entre Diputación y Lanbide para poder ofrecer a las personas cuidadoras formales la formación que se ofrece en el programa Zaintza Eskola. Para facilitar el acuerdo recogimos literalmente el acuerdo alcanzado en la pasada legislatura. No obstante, hemos aceptado modificar este punto para sacar adelante la iniciativa, entendiendo que puede haber problemas con la confidencialidad de los datos personales. Creemos que la voluntad política y la colaboración interinstitucional son las principales claves. Por eso, también llevaremos esta iniciativa al Parlamento Vasco y pediremos a Lanbide que colabore con la Diputación para ofrecer a este colectivo trabajador esta formación.

Gutako batzuk harenbaten ez gara hemen egongo datorren legegintzaldian, baina EH Bilduk arreta handiz jarraituko dau Jagoleen Estatutuaren hedapena bere ebaluazinoa aurkezten danean, eta proposamen konstruktiboak egiten jarraituko dogu haren garrantzia eta hedapena hobetzeko.

Y únicamente finalizar agradeciendo una vez más a Ana Berta y a Jane Eyre, por la disposición que han manifestado para el acuerdo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Como queda dicho, los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han presentado una enmienda. Por lo tanto, la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Izaskun Duquek Jagoleen Estatutu osoaren prozesua azaldu dauenez, ez gara barriro hasiko goitik. Baina egia da danok sarritan hausnartu eta eztabaidatu doguna familia-inguruneko zainketei buruz, batez be zelan espezialidadea handitzeak beragaz ekarren zainketen beharra handitzea, eta argi dago adostasun politiko eta publiko handia dagoala horrek dakarren erronkeari eta eredia orokorrean berrikusteko beharrari buruz.

Eta Ganbera honetako talde guztientzat be argi geratu da mendekotasuna daben personak jagoteak, haren autonomiaren alde egiteak eta etxean jarraitzeak kezkea sortzen deusena. Eta nire taldean beti defendidu izan dogu gizarte-

zerbitzuen modernizazioan aurrera egiteko beharra, pertsona jagonda egoteko eskubidea bermatu daiten eta zainketen antolamendu sozial barri baterantza joan gaitezan.

Gure ustez, zaintzearen eskubide sozialak unibersala izan behar dau, osasun publikorako eskubidea dan moduan. Hori da gure helburua, baina, era berean, jagoleen eskubideak eta preminak erdigunean jarri behar dira, eta baita erantzunkidetasun publikoa eta soziala be, zaintzak emakumeen okupazio lez naturalizau eta justifikau barik. Danoi jagoku.

Eta beste batzuetan arlo publikoak sektoreari lotutako desbardintasun horreek zuzentzeko neurriak hartu behar dauzala defendidu dogu. Eta, espiritu horregaz, Jagoleen Estatutua sortu zan, jagolea (gehienak andrazkoak) jagoteko espirituagaz.

Barrero eztabaidatuko dogu EH Bilduren proposamen horri buruz. Azaldu dau Izaskunek prozesua zein izan dan, eta proponidu deusku 192/2018 Dekretua argitaratu zanetik apurka-apurka ezarri diran neurrien eragina ebaluetea, baita Estatutua hedatzeko fase barri baterako neurriak zehaztea eta Batzar Nagusietan aurkeztea be. Jagole formalei Zaintza Eskolarako sarbidea zabaltzea be proponidu dau.

Bat gatoz ezarten diran neurrien aurrerapena eta garapena ebaluau eta neurtzearen komenigarritasunagaz eta beharizanagaz, eta ebaluazino horrek, gainera, aukerea emongo deusku jakiteko abiarazotako politikek zenbateraino asetzen dabezan personeren preminak eta planteautako helburuei erantzuten deutseen, eta, halan bajagoko, neurriek itxaropenak beteten dabezan ala ez laguntzen daben faktoreak zeintzuk diran jakiteko.

Gure ustez, proponidutako epeak laburtxo geratzen ziran, kontuan hartuta pandemiak zer-nolako eragina izan dauen 2020an eta 2021ean, orokorrean, zainketetan, baliabideetan eta familien berezko antolaketan, eta, era berean, 2030ean ezarriko diran atsedendiei jagokenez hemen adostu doguzan neurriak kontuan hartuta, aurrekontuakaz loturea daukielako.

Zaintza Eskoleari eta kasuen koordinazioari jagokenez, ebaluazino-aldi luzeago baten datu zehatzagoak emongo dauzala uste dogu. Bat gatoz, era berean, feminizauta eta prekarizauta dagoan sektore bat prestetako eta personalizetako erronkeari heldu behar jakola. Izan be, batzuetan sistematik kanpo geratzen dira behargin horreek, eta kalidadezko enpleoak eskuratu ahal izateko prestau eta gaitu egin behar dira. Eta horretarako ezinbestekoa da, gainera, erakundeen eta administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa, bakotzak bere eskumenen arabera.

Horregaitik guztiagaitik, akordio batera heldu gara Euzko Abertzaleak eta EH Bildugaz guztiok ezagutzen dozuen erdibideko zuzentzea proponiduteko, eta ez dot uste berbaz berba irakurri behar danik; izan be, uste dogu eskubideak eta baliabideak sendotzen jarraitu behar dogula, eta horretarako beti adostasunetik abiauta egin behar dogula.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Campo Prieto. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Urquieta Zuzaeta, tiene usted la palabra.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Sí, muchas gracias,

señora Presidenta, y buenos días, junteros/as.

Tira, iraupen luzeko zainketen testuinguruan, familia-ingurunean emoten diran zainketei esker, mendekotasuna daukan personea bere ohiko ingurunean, komunitadean egon ahal izango da, bertan egon gura dabe-eta personek, nahi-ta laguntzea behar izan. Testuinguru horretan, etxean irautea bideragarri egiteko sortzen diran zainketa-ekosistemek balio handia daukie, eta hori autortu beharra dago, batez be familia-inguruneke jagoleak aintzat hartuta.

Bizkaian 2018an emon genduan urrats hori, Jagoleen Estatutua onartu genduan. Araudi hori aitzindaria izan da jagoleei eskubideak autortzeko orduan. Araudi horren bidez, arretea mendekotasun-egoeran dagozan personakan ez ezik, jagoleakan be jarri genduan, eta eskubideak eta betebeharrak emon geuntsezan eta politika publikoko neurriak antolatu genduzan, eskubide horreek gauzatzeko: atsedena, prestakuntzea, gizarte-aurreikuspena, informazioa...

Eta aurrerapausu horri esker, 2018ko jagoleentzako eskubideen aldeko araudi aitzindari horri esker, eta eskubide horreek egikaritu ahal izateko orain arte aurreratu diran gauzatzeko zehatzei esker, gaur egon gaitekez orain dala aste gitxi abiarazotako neurrien ebaluazio bat proposiduteko beharra adosten, eta jagoleen atsedenen sustapenean aurrera egiten jarraitzeko neurriak adosten.

Gure ustez, ebaluazio horrek errazoizko ezarpen-aldi bat behar dau. Ezarpen-aldi horrek ebaluazio erreala goa eta osotu goa ahalbidetuko dau, onartu zanetik 5 urte igaro ondoren, nahi-ta kontuan hartu 2020-2021 aldiak, pandemiaren eraginez, ebaluazioaren sendotasuna zeozelan desitxurau egin leiken. Eta horrelan jaso genduan Euskal Sozialistakaz batera EH Bilduren mozinoari aurkeztutako zuzenketan. Eta horrelantxe jaso dogu adostutako erdibideko zuzenketan.

Txosten hori, etorkizuneko jarduera-lerroakaz batera, Gizarte Ekintzako Batzordean aurkeztuko da 2024ko lehen seihilekoan. Aitatu gura doguz, eta Duque andreak adierazo dau akordio honen laugarren puntuan, jagole formalak, besteren konturako beharginak diran aldetik, Estatutu honetan zuzenean sartzen ez diralako eta euren prestakuntza- eta eguneratze-bideak araututa daukiezalako.

Halanda be, Foru Aldundiari eskatzen deusagu gai horretan eskumena daukien erakundeen esku jarri daitela, jagole formal edo profesional horreek be euren prestakuntzea eta kualifikazioa sustatzen jarraitu dagien.

Bide horretan aurrera egiten jarraituko dogu, beste persona batzuk jagotea jagoleen bizi-proiektuagaz bideragarria izaten jarraitu dagian lagunduz, konfiantza- eta zaintza-sare horreek babestuz eta sendotuz.

En 2018 la Diputación inició esta vía en Bizkaia, reconociendo la labor de las personas cuidadoras y poniendo los medios para ejercer sus derechos. En la actualidad están en marcha diversas medidas y líneas de trabajo, y el señor Murillo aportó datos en respuesta a la señora Duque.

- El derecho al descanso está desarrollado y en los próximos años se ampliará con dos estancias residenciales, tal y como recogía la transaccional consensuada con Elkarrekin Bizkaia en marzo y que tendrá su reflejo en los presupuestos del año que viene.

- Desde el punto de vista de la formación, Zaintza Eskola es hoy en día una realidad a través de una red de siete centros.

•Para garantizar el derecho a la información se ha dado un paso importante con la implantación de la figura del/de la coordinador/a de casos.

Estas medidas facilitarán el desarrollo conjunto del proyecto de vida de las personas cuidadoras y del cuidado de la persona en situación de dependencia. En Bizkaia tenemos un punto de partida muy bueno, pionero, y de ahí vamos a ir profundizando, ampliando y completando las líneas de trabajo.

Agradecer en este caso a la señora Duque su disposición para el acuerdo e invito al resto de los grupos de esta Cámara también hoy, para que alcancemos un amplio acuerdo en esta importante cuestión de los cuidados. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urquieta Zuzaeta. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, desde el escaño, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Bai, eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Talde Popularrak ekimen honen alde bozkatuko dau. Uste dot argi daukagula danok administrazio publikoek jagoleei laguntza osoa emon behar deusena. Gainera, egia da atzerapenagaz heltzen garana, Bizkaian gai horreetako batzuetan aitzindariak garan arren. Baina egia da, batez be, orain arte emakumeek egindako lana izan dana, edade jakin bateko emakumeek egindakoa endemas. Eta, gainera, emakume horreek euren ondoizate personalari, gizarte-bizitzeari eta aisialdiari eragiten deutseen hainbat lanen zamea be badaroo.

Uste dot lehen esan dala egia dala gaur egun 15 egun (daborduko 30 eguneko atsedena izan leiteke) hartzen dauzan jentearen portzentajeak sano txikiak dirana hondino, edo baita Zaintza Eskolan parte hartzen ari diranena be. Uste dot, jakina, ondo dagozala politika publiko guztiak. Hobetzen joan daitezkan beharrezkoa da ebaluazino bat egitea eta, nire ustez, ebaluazino horrek jarraitua izan behar dau, eta uste dot, gainera, helburuen ezarpenean sakondu beharko geunkela. Danok izan geintekoz anbizino handikoak helburuakaz; izan be, familia-ingurunean jagoten ari diran persona guztiak eskura izan ahal dabez baliabide guztiak, baina, askotan, gatxa da baliabide horreetara heltzea, edo, batzuetan, gauzak atzeratu egiten dira, balorazinoak falta diralako.

Halanda ze, bai, uste dot ados gagozala egiten ari garana ebaluetako gaiagaz, Jagoleen Estatutua abian zelan jarten ari dan ebaluetako gaiagaz, baina, era berean, uste dot egokia litzatekela helburu batzuk ezartea, denporeagaz bete ahal izateko, edo helburu horreek aldatzeko, Estatutu hau ezartean ikusten diran preminen arabera. Izan be, egia da gaur egun euren eskura jarten doguzan zerbitzu horreek erabilten ari diran personen ehunekoak sano txikiak dirana hondinokarren.

Eta barriro dinot, esate baterako, arreteja jarri gurako neuke familia-inguruneke zaintzarako prestazino ekonomikoak kobretan ari ez diran personakan be, balorazinoei itxaroten dagozalako eta batzuetan gai horreek be atzeratu egiten diralako, eta uste dot hori be puntu garrantzitsua dala.

Barriro dinot, uste dot gai honetan egiten dogun guztia gitxi izango dala, eta beti egongo dala beharizan gehiago beteteko, eta ondo dago aurrera egitea. Eta, barriro dinot, Bizkaian aitzindari izaten ari gara gai batzuetan, eta uste dot aitzindari lez be gero eta zorrotzagoak izan behar garala, eta urteetan zehar aurrera egiteko jarraibideak

emon deikeguezan helburuak ezarten joan behar garala. Baina erregulazinoan aurrera egiteaz gain, prestazinoak ezarten aurrera egiteaz gain, aurrera egin behar da erregulazino horreen bidez bizkaitarrek bizitza errazagoa eta umilagoa euki dagien, eta eskura egon leitekezan prestazino horreek persona guztientzat izan daitezcan, eta ezarrita dagozan prestakuntza-plan horreek behar dabezaneke be erabili dagiezan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández andrea. Y el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Egun on.

Elkarrekin Bizkaiari jagoko orain Bizkaiko Jagoleen Estatutuaren hedapenari buruzko akordio-proposamen hau baloretea, edo, hobeto esanda, Jagoleen Estatutuaren hedapena ebaluetako proposamen hau baloretea. Izan be, erdibidekoaren puntu nagusia horixe dala uste dogu, hain zuzen be, Aldundiak Estatutu honetan jasotako eskubideen, jagole informalen eskubideen asebetetze-mailea berrikusi dagiala eta modu publikoan balorau dagiala eskatzea.

Proposamena egin dauen taldearen jatorrizko ekimenak izan dauen funtsezko aldaketea, lehen esan dan moduan, hasiera bateko proposamenaren egutegia lasaiagoa izatea izan da. Legegintzaldia amaitu baino lehenago Estatutuaren alderdi desbardinaren aplikazino-mailearen ebaluazinoa eskatzen zan, eta orain barriz, datorren urtearen amaierara arte formulau da, denpora apur bat irabaziz.

Foru Gobernuia osotzen daben alderdietatik datozen era honetako atzerapen-zuzenketa dagozanean, zeozelako interes maltzurra euki leikiela susmatuarazoten deuskue. Beharbada denporea irabazteko interesa ete dagoan, urtebete barru hauteskundeetatik harago denporea irabazteko, eta, zeozelan, kontuen emote hori hurrengo legealdirako ixteko.

Baina, erdibideko zuzenketa entzun eta irakurri ondoren, uste dogu ez dala hori kasua, edo behintzat hori espero dogu bihotzez. Esan da zelan beteten ari diran Jagoleen Estatutuan jasotako eskubideak, zein mailatan.

Prestakuntzeari eta Zaintza Eskoleari jagokenez, hondino ez da amaitu euren garapenaren ziklo oso bat. Halanda ze, goizegi izango litzateke.

Atsedenerako eskubideari jagokenez, (ondo autortu jakun moduan, gure taldeak, Elkarrekin Bizkaiak eskatuta zabaldu eta hobetu zana) martian berrikusi zan, eta horretan be goiz da balorazino esanguratsua egiteko.

Lehengoa eta bat kasuaren koordinatzailearen figureari jagokenez. Zentzunezko planteamentuak dirala uste dogu eta, egin dogun formula bat erexten deusagunez, proposamenaren erdibidekoaren alde bozkatuko dogu.

Bigarren eta hirugarren puntuei eta baita laugarrenari be garrantzi gitxiago emoten deutsegu, eta ebaluazino hori abiapuntutzat hartuta proponiduko diran ondorioak eta lan-ildoak Gizarte Ekintzako Batzordean azaltzeagaz lotuta dagoz. Zentzunezko prozedura bat dala emoten badau, garrantzitsua da idatziz jartea, ezta?

Estatutuaren hedapenaren ebaluazioa denporea bete orduko trabea alde batera itxita, gure ustez politika publiko baten ebaluazio eraginkor bati atxikita egozan bi alderdi aurkitu doguz: ondorio batzuk pronostiko batez ateratea eta jentearrean azaltzea, hatan be. Gure ustez, horrelango ebaluazio bat ofizios egin beharko litzateke, eta proponidutako egitura hori unibersala izanik, ondorio batzuk azaldu beharko lirateke, gomendio batzuk egin beharko lirateke, hainbat aukera planteatu beharko lirateke.

Egia da azken puntuak (laugarrenak) beharbada aparteko azalpenen bat behar dauena, euren prestakuntzea osatzeko jagole profesionalak prestetako eskumena daben erakundeak Aldundiaren esku jartzeagaz zerikusia daukan puntuak; izan be, gure ustez, Zaintza Eskoleak Lanbideren oneretxia izateaz gain, hareekaz lankidetzan gauzatzen da.

Halanda ze, ez dakigu lar ondo zer dagoan jokoan laugarren puntu horretan, zein dan horren mamina. Hemen proponiduten genduan zalantza bat da laugarren puntuko honen benetako balioa dimensionetearren, edo, ostera, datuen konfidentzailtasunaren arazoi buruzko kontu bat baino ez dan, ez dakit; azkenaldian sarritxo ateraten da eta termino zabalagoetan berrikusi beharko da, Arartekoak egoitzen eta COVID dalakoaren inguruan egindako txostenak inoan moduan, gardentasun demokratikorako eta kasu batzuetan funtzionamenturako arazoak sortzen ari bada. Argitzen deuskuzuenan, eskertuko deusuet.

Edozein kasutan be, beti gara arau-tresnen ebaluazio gardenerako prozesuen aldekoak, eta horren ondorioz erakundeek emoten dabean zerbitzuen eta prestazioen aldekoak. Erakunde horreek, ez daigun ahaztu, etxeko zaintza informal horreen guztien azken arduradunak izateaz gain, Bizkaiko Lurralde Historikoan be badira. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias.

A decir verdad, no iba a utilizar el segundo turno, pero quizás por explicar el punto cuarto.

Ez neukan pentsauta bigarren txandan urtetea. Izan be, uste dot akordio batera heltzen garanean nahiko argituta geratzen dirala jarrerak lehenengoan, baina tira, laugarren puntuari jagokonez, jakina, Jagoleen Estatutuan, Estatutu horrek jasoten dauen subjektua edo jasoten dauzan subjektuak jagole ez-formalak dira, Foru Dekretuetan jasota daukagunaren arabera.

Halanda ze, persona horreek bakarrik izan ahal dabez eskubide horreek, jagole ez-formalek. Hori da, hain zuzen be, etxeko behargin formalek, esan daigun, gaur egun Zaintza Eskolan sartzeko daben arazoetako bat.

Beste arazo bat, EAJk eta Alderdi Sozialistek aitatzen euskuena datuen konfidentzailtasuna zan. Guk, azaldu dodan moduan, uste dogu gehiago dala borondate politiko kontua eta erakundeen arteko lankidetzak kontua, eta horregaitik esan dogu ekimen hori bera aurkeztuko dogula Eusko Legebiltzarrean, Lanbideri eskatzeko Aldundiagaz lankidetzan aritu daitela, etxeko behargin horreek be prestakuntza-ikastaro

horreetan parte hartu ahal izan dagien. Lortu dogu bai Alderdi Sozialistek eta bai EAJk eskatu degioela, eta guk be eskatu degiogula Lanbideri lankidetzaz horretarako eskua luzatu degion. Bada, orain saiatuko gara Lanbidek be gauza bera egin dagian.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. La representante del grupo Socialistas Vascos no va a intervenir.

Nacionalistas Vascos, señora Urquieta Zuzaeta, desde el escaño, tiene usted la palabra.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Sí.

Lehenengo puntuan adierazotakoari ezer gitxi gehitzeko. Gure taldetik, barriro be, akordioaren balioa autortzea gai honetan. Argi dago zainketen gaiak guztiok kezkatzen eta arduratzen gaituana. Garrantzitsuena da prestazio eta eskubide guztiak jagoleen zerbitzura jartea, eta ezarpenaren ebaluazio horrek aukerea emongo deusku neurrien eta horreen garrantziaren balorazio errealagoa egiteko. Martínez andrea, horixe da aurrera egitea eta helburuak ezartzea.

Eta Fernández jaunari jagokonez, harritu egiten nau erdibidekoan proponidutako data elektoralistea ete dan edo ez zalantzan jarri izanak, zure proposamena bera, marti ingurukoa, ia martxan jarri barik geratuko litzatekelako 2022ko ebaluazioaren hasierako datan geratuko balitz, eta hori ez litzateke ez bidezkoa ez bermatzailea izango.

Eta laugarren puntuari jagokonez, Duque andreak argitu dau. Eta gure alderdiaren izenean, besterik ez, akordioa eskertzea baino ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urquieta Zuzaeta. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular no va a intervenir.

Y el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, desde el escaño, tiene usted la palabra. Que prefiera desde la tribuna y, bueno, tiene usted la palabra, señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Parkatuko deustazue daborduko motxilea zarratzen egon zarienok. 5 minutu, bai?

Bozketea baino lehen errondea bukatzeko pribilegioa daukadanez, prestakuntzearen inguruko argibidea dala eta; etenbako prestakuntzea, espezializazio-ikastaro osagarriak eta abar ondo etorriak dira beti. Ez dakigu Zaintza Eskoleak zeozer ekarriko deusan profesionalizata dagoan jenteari, baina, edozelan be, ondo etorria izan bedi.

Egunen baten, lehenago edo geroago, Aldundiak zainketan behar egiten daben personen oinarrizko prestakuntzea osatu beharko dau, ez bakarrik ikastaroak, ezpada oinarrizko prestakuntzea finantzatuz (zati baten bada be), dala erizaintzako laguntzailearena, dala desgaitasuna daben gure mendeko personei arreta soziosanitarioa emoteko beharrezkoak diran profil guztiena, etab. Izan be, beharbada buelta asko emoten ari gara, eta prestakuntza arautuaren, formalaren eta oinarrizkoaren aldeko lana egin behar da, ahal izan ezker ikastetxe publikoetan, prestakuntza hori behar daben edo eskatzen daben gure profesionalak teknifiketako, haren trebakuntza teoriko-praktikoa eta abar bultzatuz. Funtsezkoa da, eta hori zeozelan sustatuz egin daiteke.

Edozelan be, eta onartzen ari garanaren eta harenbaten aho bateko botoakaz onartuko dogunaren azken balorazioa egitearren, ebaluazino batez ari gara, besterik ez, ebaluazino bat besterik ez. Ebaluazino hori ofizioz eta modu sistematikoan egin beharko litzateke herritarrentzat eragina daukan edozein politika publikotan. Uste dot ezin doguzala gauza horreek erispide barik egin, eta proponidutakoari buruzko hausnarketea ofizioz egin behar dala.

Batzuetan Batzar Nagusietan ezin danez ezer jakintzat jo, bikain erexten deusagu eta alde bozkatuko dogu. Preminazkoa da familia-eremuan emoten diran zaintzak prekarioak izateari ixtea. Horretarako, berbabide daukaguzan eskubideak bermatu behar dira, familia-inguruneko zaintzarako prestazino ekonomikoa gabonsari bat izateari itxi behar jako, eta jente horretaz arduratu behar gara, eta euren eskubideak autortu.

Baina nahi-ta arreta handia jarri familia-eremuan jazoten danari, nahi-ta esan EtxeTIC programeak osatu egingo dauela, ezin dogu ahaztu noraino heltzen dan Bizkaiko Foru Aldundiaren zainketen erantzukizuna, eta etxeetatik harago doa, hau da, behar daben bizkaitar guztiei zentro eta profesionalen sare bat egiaztetea eta ahalbidetzea da bere erantzukizuna, haren ahultasun edo behar sozial guztiei erantzun ahal izateko.

Edozelan be, pozten naz guztiok alde bozkatuko dogulako. Eta hurrengora arte.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. Esperaremos a que todos/as estemos en nuestros escaños, tranquilamente, para votar la transaccional. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido 44 votos en total. Han sido 44 votos a favor, no ha habido abstenciones, no ha habido votos en contra. Por lo tanto, queda aprobada la transaccional.

Y recuerden que el Pleno de Control de la semana próxima tendrá lugar en la Casa de Juntas de Avellaneda. Muchas gracias, y que tengan todos y todas, un buen día.

Batzarra 13:49an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:49 horas.